noaua



TXALAPARTA FESTAN MURGILTZEKO PREST


Eguerdian egingo den herri erromeria batekin abiatuko da larunbat honetako ospakizuna / **14-15 or.**

ARGAZKIA: UDALA



NOAUA

Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, behin betiko onartua / 08



NOAUA

Askotariko jatorrien bilgunea izan zen Mundualdia / 13




NOAUA

"Zuberoako ikastolen aldeko kanpainan parte hartzeko deia egin nahi dugu" / 20



NOAUA


Larunbat honetako bizikleta martxak Usurbil eta Añorga lotuko ditu / 23



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO, URRUTIKO ETA GERTUKO BIGARREN LENTE PAREA DOAN!



943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-21:00 Asteartetik ostegunera
8:00-23:00 Ostiral eta igandetan
8:00-00:00 Larunbatetan

*Astelehenak itxita atsedenagatik

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua

ERRIGORAKO PRODUKTUEN
2 SASKI ZOZKETATUKO DITUGU
NOAUA!ko BAZKIDEEN ARTEAN

Zozketa eguna: AZAROAREN 16A



Denetariko produktuz osatutako bi saski:
kontserbak, pasta, arroza, ardoa, olioa...
osotara 10 produktu saski bakoitzean.

Bazkide egiten bazara zozketa honetan parte hartzeko aukera izango duzu - 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Usurbil 1936 elkarteak antolaturiko liburu aurkezpena

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin argitaratutako "Euzkadiko borrokalarietako bat naiz. Internazionalistak Gipuzkoan 1936ko Gerran" ikerketa aurkeztuko dute Aitzol Arroyo historialariak eta Aitor Azurki kazetariak, Usurbil 1936 elkarteak azaroaren 19an 19:00etan Potxoenean antolaturiko ekitaldian. Biak ala biak "Usurbil 1936 elkartean ondo ezagunak ditugu, Usurbilen gerrari buruzko ikerketan bidelagun izan ditugulako. Orain, gerra hartan parte-hartze aktiboa izan zuten nazioarteko borrokalarien historia aski ezezaguna atera dute argitara. Borrokalari haien artean, gutxienez bat Usurbilen aritu zen".



Aitor Azurkik eta Aitzol Arroyok liburu berria aurkeztuko dute, Potxoenean.

Garbigune mugikorra, herriko erdigunean

Kalezartik Mikel Laboa plazara lekuz aldatuko du Udalak garbigune mugikorra azaroaren 12an eta bertan izango dute hilaren 18ra arte, Aginagara lekuz aldatu aurretik. Hurrengo errefus bilketa eguna azaroaren 22a izango da.

"Emakumea eta ariketa fisikoa" saioa Pelaioenean

Saio horixe antolatu du Usurbilgo Emakumeon Etxeak udazken honetarako antolaturiko eskaintzaren baitan. Azaroaren 13an izango da, 17:00etan Kalezarko Pelaioenean. Agurtzane Alkorta Urdanpilleta izango da saioko hizlaria.

Tailerra, osasun sistemako erabakitze eskubideaz

"Gure erabakitzeko ahalmena osasun sistemaren aurrean" tailerra antolatu du Usurbil Herri Zaintzaileak. Nere Erkiagak bideratuko du, azaroaren 16an, 18:00etan Potxoenean. "Pazientearen autonomiari eta osasun sisteman ditugun eskubideei buruz jardungo dugu".

Azaroaren 13an, "Herrimamituz" bertso-saioa Zubietan

Zubieta Lantzen elkarteak antolatu du azaroaren 13an 19:00etan Zubietako elizan. Andoni Egaña Makazaga eta Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi" bertsolariek eta Xabier Alberdi Lonbide historialariak parte hartuko dute hitzorduan.

noaua TOKIKOM
PEFC FSC

Argitaratzailea: Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria: Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Kudeatzailea: Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea: Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna: Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailea: Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.120 ale.
Imprimategia: Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Usurbilgo Udala

BIKAIN
EUSKARAREN KALITATE-ZIURTAGIRIA

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



AINHOA AZPIROTZ EIZMENDI

Hotzikaratik sukarrera

Egin berri dugu etxebizitza eskubidea bermatzearen aldeko eta espekulazioaren kontrako greba orokorra. Bi aldarrikapen: etxebizitza duinak eta espekulazioa amaitzea.

Egun hauetan *Berrian* eta *NOAUA!*n irakurritako datuek oihartzun egiten didate oraindik.

Alokairuko etxe batean bizi zen Aljeriatik etorritako Hamza, baina ez baldintza duinetan: bospasei lagun hiru logelatako etxean. Hamzak ez zuen gela partekatzen, bere gela propioa zuen eta 450 euro ordaintzen zituen hilero, beltzean, kontraturik gabe. Ondoren beste etxe batean egon zen, han ere alokairuan, ur berorik eta argirik gabe. Jabeak ez omen zuen ordaindu nahi, baina kobratu, 550 euro kobratzen zizkion hilero. Diru hori kobratuta, miserablea behar du izan pertsonak maizterrak argirik eta ur berorik gabe edukitzeko! Hotzikara ematen du.

Espekulazioaren datuak, berriz, hotzikaraz haratago, sukarra eragiten du. Usurbilgo Udal Etxebizitza Bulegoko langileek esandakoaren arabera, badira etxebizitza dirua irabazteko erabiltzen duten pertsonak. Idealistaren webgunean 1.400 eurotako bat agertzen da. Etxe berria, estreinatzeko, 2025ean eraikia, 1.400 eurotan. Alokairu horrekin, jabeak erosi berri duen etxebizitza ordainduko du, alajaina! Udal Etxebizitza Bulegoko langileek arrazoi: batzuk etxebizitza inbertsio modura erabiltzen dute. Eta horren kontra egon behar dugula diote. Nola ez ba! Arrain handiak beti arrain txikiak jaten? Batzuk beti besteak baino listoagoak ote?



"Ezin da onartu etxebizitza dirua irabazteko erabiltzea; horren kontra egon behar dugu". LAB SINDIKATUA

Panorama horrekin, sukarra 38tik 40ra igotzeko arriskua erreala da. Batez ere gurasoen etxetik emantzipatu nahi duten gazteen kasuan. 25 urtetik beherako gazteek soldataren % 78a erabiltzen dute alokairua ordaintzeko. Beraz, % 22 gelditzen zaie gainerako gastuetarako. Horregatik, ez da bideragarria alokairuko etxebizitza batean bakarrik bizitzea.

Etxebizitza erosi nahi dutenen kasuan, panorama ez da hobea. 25 urtez azpikoek soldataren % 30 erabiltzen baldin badute etxea ordaintzeko, 30-31 urte behar dituzte etxebizitza sozial bat ordaintzeko eta 53 urte etxebizitza libre bat ordaintzeko. Adin tarte guztiak kontuan hartuta, 19 urte behar dira babes ofizialeko edo etxebizitza sozial bat ordaintzeko eta 35 urte salmenta libreko bat ordaintzeko.

Sukarra jaisteko paracetamola baino zerbait gehiago behar da. Etxebizitzaren erabilera espekulatiboa debekatzea premiazkoa da.

"USURBILEN ETXE BERRIA, ESTREINATZEKO, 2025EAN ERAIKIA, 1.400 EUROTAN ALOKAIRUAN. EROKERIA!"

"Santuenea martxan!" tailerrak

Azaroak 20, ostirala
• 17:00 Ontzien dekorazioa "Gure Txikiak" ludotekan.

Azaroak 21, larunbata
• 17:00 Belarritako eta koilareen tailerra "Gure Txikiak" frontoi ondoko lokalean.

1957an jaiotakoen ospakizuna

Azaroaren 21ean bilduko dira bazkaritarako Patri jatetxean. "Oraindik animatu ez denik bada" izena emateko gonbita egin dute. Izena azaroaren 14ra arte eman ahalko da: 620 231 299 (Juantxo). 617 392 767 (Iñaki).

Hauteskunde kanpaina

Espainiako Gorteak berritzeko azaroaren 29ko hauteskundeei begirako kanpaina ofizialean murgilduko dira deialdira aurkezturiko eragile politikoak hilaren 13tik 27ra. Gogoan izan, hilaren 19ra arte izango da posta bidez botoa ematea eskatzeko epealdia eta hilaren 26ra arteko epealdia finkatua dago, modalitate horretan bozkatzeko dokumentazioa jaso ostean, modu horretan botoa emateko. Correoseko bulegoetan tramitatu dezakezue posta bidez bozkatzeko eskaera, nortasun agiria edo norbere burua identifikatzeko baliokidea den dokumentua aurkeztuta. Bestela, telematikoki ere egin ahalko da eskaera correos.es helbidean.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri
Patrienea jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361



Abenduaren 4an, sendabelar ikastaroa eskainiko du Leire Lazkanok.

Tailerrak eta kantu-bazkaria Santuenean

Santuenea Kultur Elkarteak hainbat ekimen iragarri ditu asteotarako.

Azaroak 20, ostirala

• 17:00 Ontzien dekorazioa Inma Arroyoren eskutik ludotekan. Prezioak: Santuenea Kultur Elkarteko bazkideek euro bat, bazkide ez direnek 2 euro.

Azaroak 21, larunbata

• 17:00 Belarritako eta koilareen tailerra Santueneko frontoi ondoko lokalean, 16 urtetik aurrerakoentzat.

Abenduak 4, ostirala

• 17:30-20:00 Sendabelar tailerra Santueneko frontoi ondoko lokalean, Leire Lazkanoren eskutik. Prezioa: Santuenea KEko bazkideentzat 15 euro, bazkide ez direnek 20 euro.

Saioetako izen-ematea: santueneake@gmail.com 621 095 644.

Abenduak 6, igandea

• 14:00 Kantu-bazkaria Santueneko Aialde-Berri sagardotegian. Sebas & Kikek girotuko dute. Menuak:
-Helduena: txorizo egosia, bakailu tortila, saiheskia eta letxuga, gazta, irasagarra eta intxaurrak. Ura, sagardoa, ardo beltza. Kafea (kopa aparte). Prezioa: 35 euro.
-Haurrena: makarroiak tomate eta txorizoarekin, hanburgesa kroketak eta patatekin. Izozkia. Prezioa: 18 euro.
• Txartelak Santueneko Esnaola janari-dendan eta Artzabal jatetxean salgai azaroaren 30era arte, baita santueneake@gmail.com helbidean nahiz 621 09 56 44 telefono zenbaki bidez ere.

"ABENDUAREN 6AN KANTU BAZKARIA ANTOLATU DUTE AIALDE BERRIN. TXARTELAK SALGAI DIRA JADA"

Azoken garai betean

Azaroak 28, larunbata

Hurbilagoren Udazkeneko Azoka Usurbilgo frontoian.
• 11:30-14:30 Azokako salmenta postuak.
• 11:30-14:30 Tailerrak, Ziortza Gazte Elkartearen eskutik.
• Azokan zehar, gaztainak eta sagardoa doan, azokan eginiko erosketen truke.
• 13:30 650 Usurbil Bizi Otarraren aurkezpena.

Azaroak 29, igandea

25. Erle Eguna
• 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa, postreen bilketa, marrazki lehiaketa.
• 11:00-14:00 Azoka:
-Balerdipekoen eskutik tailerra.
-Ezti eta txokolatezko goxoak.
-Ezti dastaketa.
• 13:30 Sari banaketa: eztigintza, gozogintza, marrazkiak.

Abenduak 20, igandea

• Eguerdi partean, NOAUA! Kultur Elkartearen San Tomas Azoka frontoian.
Antolatzailea: NOAUA!

Miel Joxe Errastiren sendiari

ARANTXA MANTEROLA, IMANOL UBEDA
(NOAUA! HEDABIDEKO ARDURADUNA)

Urriaren 16an, NOAUA! aldizkariaren 1091. zenbakian, 'Sesioa, kosta ahala kosta' izeneko pasadizoa plazaratu genuen *Xelebrekeriak* izeneko atalean.

"Errasti-eneako Miel Joxe" zen idatzitxo horretako protagonistetako bat. Bere sendia minduta dago bertan esaten zenarekin, eta bere samina eta haserrea helarazi digu.

Lehenik eta behin, Arantxa Manterolak osatutako atalari buruzko azalpen bat eman nahiko genuke, testuingurua garrantzitsua izaten baita halakoetan.

Udaberrian, *Xelebrekeriak* atala zabaldu genuenean, asmoa zen garai bateko pasadizoak, kontakizunak... gogora ekartzea. Batzuk, 'Usurbil 1371-1971' liburuan jasota zeuden; eta gainerakoak, Arantxa Manterolak jaso zituen duela 30 urte, herritarren ahotik jaso ere, haietako asko dagoeneko gure artean ez daudenak.

Kontakizun horiek denak ahoz aho bildutakoak dira, eta ez dute albiste batek duen pisua edo ardura. Testu labur horiekin aspaldiko pasadizoak ekarri nahi genituen gogora, itzuliko ez den garai bateko xelebrekeriak berritu... Belaunaldiz belaunaldi herrian transmititu direnak argitara eman, labur esanda.

Halako 50 pasadizo atera ditugu guztira (dagoeneko amaitu da xelebrekerien bilduma), eta ez zaigu inolako kexurik iritsi. Kontrara, asko izan dira horrelako gehiago eskatu dizkiguten herritarrak. Dena den, ulertzen dugu interpretazioak libre direla, eta Miel Joxe Errastiren familiak pasadizo hori saminetik irakurri badu, jaso dezala gure barkamen eskaerarik zintzoena. Sentitzen dugu, benetan. Ez zen gure intentzioa, ez Arantxarena, ezta NOAUA!rena ere.

Idatzi hau argitara emateaz gain, 1091. zenbakiko PDF bertsiotik atal hori kenduko dugu.

Batzuetan asmatuko dugu eta besteetan ez. Baina ez da fede txarrik izan ez Arantxa Manterolaren aldetik, ezta NOAUA!ren partetik ere.



10. Bizipoza Jardunaldiko antolatzaileak eta parte hartzaileak, iragan astean Potxoenean eginiko aurkezpen agerraldian.

Haurren eskubideez, Bizipoza Jardunaldia

"Nola kokatu haurren eskubideak erdigunean? Eta errealitate bihurtu?", horri buruzkoa izango da azaroaren 21ean Sutegin egingo den 10. Bizipoza Jardunaldia. Helbide honetan izena eman dezakezue: labur.eus/bizipoza10

ARITZ LASARTE

Aurtengoan Bilbon ere egingo duten jardunaldian, "haurren bizi-proiektuak garatzeko beharrezkoak diren eskubideen inguruan hausnartu eta bidea egingo dugu elkarrekin". Bizipoza elkarteko ordezkari Garazi Oregik hitzorduaren iragan asteko aurkezpen agerraldian jardunaldion helburu nagusia zehaztu zuen; "haurren bizi-proiektuak garatzeko beharrezkoak diren eskubideen bide-orria idaztea guztion artean".

Gogoan izan, Usurbilgo zein Bilboko jardunaldiok azaroaren 20ko Haurren Nazioarteko Egunaren eta azaroaren 30eko Herri Hezitzaileen Nazioarteko Egunaren artean egingo dira. Hilaren 30eko deialdi horren harira, jardunaldiko hamaiketako tartea girotua izango dela iragarri dute. Izan ere, Usurbil Oinherri herri hezitzaileen sarean dago. Euskal Herri hezitzailea eraikitzen diharduen bilguneak soka-dantzan batzera deitu dute. 10. Bizipoza Jardunaldia baliatuko dute horretarako. "Hamaiketakoan zehar, soka-dantza egingo dugu guztion artean, Herri Hezitzaileen Nazioarteko Eguna ospatzeko".

Jardunaldion aurkezpen agerraldian hitza hartzen lehena, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesa izan zen. Urtero moduan, ohoretzat jo zuen, "herrian bertan halako hausnarketa eta ikasketa gune bat eduki ahal izatea", hain zuzen, "eskubide sozial ugari kolokan egon daitezkeen testuinguru global batean". 1989ko azaroaren 20an (ordutik Haurren Nazioarteko Eguna), haurren eskubideak hitzarmen bidez onartu ziren. Ia berrogei urte igarota, "umeen eskubideak erdigunean jarri eta horiek nola egikaritu, bermatu, elkarrekin hausnartu, pentsatu eta elkarrekin ekiteko" egingo dute datorren jardunaldia.

"JARDUNALDIKO HAMAIKETAKOAN ZEHAR, SOKA-DANTZA EGINGO DUGU GUZTION ARTEAN"

"BADUGU ZER BEGIRATU ETA ZER HAUSNARTU, USURBIL HERRI ZAINTZAILEA IZATEKO"

"Badugu zer hausnartu"

Udalak bat egin du ekimenarekin, "goiburuko galderak instituzioak ere interpelatzen gaituela ulertzen dudalako, guk ere gurean badugulako zer begiratu eta zer hausnartu, are Usurbil herri zaintzailea izateko helburua ezarria dugun aldetik". Urteotako ezagutza eta esperientzia "haurren eremura eraman beharrean gaudela argi dut, Usurbilgo herritar guztiak direlako eskubide osoko herritar, eta ondorioz, noski, baita haurrak ere". Horregatik beharrezkotzat jo zuen, "zaintza eredu zatikatu eta isolatuetatik zaintza ekosistema integral, publiko eta komunitariora igarotzeko trantsizioa" prestatzea. Trantsizio bide horretan, "Usurbilen, haurren zaintzarako eta garapenerako ditugun baliabideak askotarikoak dira, sare bat badago artikulatuta". Horrez gain, Oinherri herri hezitzaileen sarean da, Haurren Kontseilua ere badu, baina alkatearen esanetan, "lan handia dugu denona eta denontzat izango den Usurbil eraikitzeko". Lanketa bide horretan, "jardunaldi hauek aukera ederra ematen digute, ikasten jarraitzeko, praktika onak zabaltzeko".

"Bozgorailu handia"

Hilaren 21eko jardunaldian hitza hartuko dutenen artean izango da, Bizipozaren baitako elkarteetako bat, Pausoka. Behar bereziak dituzten haurren eta haien familien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen dihardu. Bertako ordezkari Amaia Irustaren esanetan, "Usurbil, benetan etxea sentitzen dugu". Eskertza helarazi zion baita Bizipozari, bere "esfortzu hauspotzailea" tarteko. Elkarte txikia izanik,



Haurren eskubideei buruz mintzatuko dira, azaroaren 21eko 10. Bizipoza Jardunaldian.

⟶ halako sare bat haientzat "bozgorailu handia" dela nabarmendu zuen; "efektu esponentzial handia lortzen dugu elkartzerakoan". Datorren hilaren 21eko jardunaldiari dagokionean adierazi zuenez, "guretzat oso garrantzitsuak dira, zaurgarritasunean bizi diren familiak, askotan, eskubide batzuk pribilegiotzat jotzen ditugulako eta horiek guztiz barneratuak ditugulako". Honenbestez, haurren eskubideen gaiaz hausnartzeko saioa garrantzitsutzat jo zuen, benetan jabetzeko, "zer den bidegakeberia bat, zer den eskubide bat eta zer ez den pribilegio bat". Eskubide urraketak edozein izanda ere, edozein izanda ere bizitako egoera, horiek eskuratzeko egin beharreko "prozesua berdina" dela gogorarazi zuen Pausokako ordezkariak. Halere, "bidegabekeria bat baino gehiago pairatzen duten familien zailtasunak esponentzialki askoz handiagoak direla" ohartarazi zuen eta haiek aurretik izandako egoera larriagotzen dutela. Horregatik garrantzitsutzat jo zuen, eskubide urraketak "parametro, gaitz edo arazo" soil batetik ez behatzea. "Guztion errealitateak lagungarriak dira guztion bizitzak hobetzeko", gogorarazi zuen. Ildo horretan kokatu zuen hilaren 21eko jardunaldia.

Jardunaldi horretako lehen mahainguruan hitza hartuko dutenen artean izango da hain zuzen, Deustuko Unibertsitateko irakasle eta gizarte zerbitzuen alorreko aditu Felix Arrieta. Aurkezpen agerraldian antolatzaileak eskertu zituen, garrantzitsutzat jotako jardunaldiko gaiari eta erronkari heltzeagatik. Donostiarrak gizarte zerbitzuen arlotik aztertuko du gaia azaroaren 21eko hitzorduan. "Ez da kasualitatea, hau Usurbilen hastea, hortik ere bigarren eskertza. Etxean sentitzen naiz". Tokikotasunetik egindako ahalegina goraipatu zuen Arrietak. "Esperientziak asko daude toki mailan. Toki mailatik gertatu behar dira" izan beharreko eraldaketak, bere esanetan, erronka nagusira gerturatzen joateko. "Sistemak erronka asko ditu pertsonak erdigunean jartzeko, pertsonari gauzak errazteko eta haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko". Eskubideak bermatzeari buruz ariko dira. "Horixe komentatuko dugu; nola egin dezakegun Usurbilen, hain ondo inplementatu duzuen begirada ekosistemiko hori, batzen dituenak baliabide publikoak, komunitarioak, begirada komunitario eta publiko hori adin txikikoengana ere iritsi dadin, eta iritsi dadin benetan, elkarteek mahai gainean jarritako logika horren bitartez, zailtasun horiek guztiak ez daitezen zailtasunak izan eta sistemak benetan bermatu ditzan pertsona horiek behar dituzten eskubideak".

"EFEKTU ESPONENTZIAL HANDIA LORTZEN DUGU GUZTIOK ELKARTZEN GARENEAN"

"GUZTION ERREALITATEAK LAGUNGARRIAK DIRA GUZTION BIZITZAK HOBETZEKO"

10. Bizipoza Jardunaldia

Eguna: azaroak 21, larunbata.
Ordua: 09:30-13:30.
Tokia: Sutegi.
Jardunaldiaren izenburua: "Nola kokatu haurren eskubideak erdigunean? Eta errealitate bihurtu?".
Zehaztasunak: "Bizipozak, eragiteko helburuaren barruan, haurren oinarrizko eskubideen inguruko lanketa abiatu zuen urtarrilean. Jardunaldi hauetan, gurasoak, irakasleak, familiak, elkarteak eta instituzioak elkartuko gara elkarlanerako bide-orri bat eraikitzeko, haur guztiek beren bizi-proiektua garatzeko behar dituzten eskubideak bermatzeko".

Egitaraua:
-Haurren Eskubideen Euskal Herriko Batzordearen Kokapena: Garazi Oregi (Bizipoza elkartea).
-"Haurren eskubideak zeharkatuz" teknikarien mahaingurua. Hezkuntza-arlotik, arlo juridikotik, gizarte-zerbitzuenetik eta osasun-arlotik aztertuko dute gaia. Hizlariak: Felix Arrieta gizarte zerbitzuetan aditua, Peio Manterola EHUko irakaslea, historialaria eta ikertzailea, Zelai Nikolas legelaria eta Nagore Garcia de Andoin haur onkologoa.
-Hamaiketakoa eta soka-dantza.
-"Elkarteak eta haurren eskubideak: nondik hasi?" Bizipozako elkarteen mahaingurua. Parte hartzaileak: Aspanogi, Hil Argi, Ndank Ndank, Pausoka eta Ume Alaia elkarteak.
Izen-ematea: labur.eus/bizipoza10
Informazio gehiagorako: bizipoza.eus/jardunaldiak
Antolatzailea: Bizipoza elkartea.
Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Fundazioa, Rural Kutxako Gizarte Ekintza, Irizar, Maier, Mitxelena, Lagun Aro.



Agurtzane Solaberrieta Mesa eta Iratxe Begiristain Otegi udal ordezkariak, HAPO-ari buruzko agerraldian.

Usurbilen etorkizuneko plana indarrean da

Azken onespena ofizialtzea baino ez zuen falta aplikagarria izaten hasteko eta heldu da. Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) behin betiko onartu zuen, urriaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez jakinarazi moduan.

ARITZ LASARTE

Honenbestez, indarrean da Usurbilgo HAPO-a. "Mugarria da Usurbilgo herriarentzat, HAPO-ak Usurbilek hurrengo 15 urteetan izango duen garapena finkatzen duelako", azaldu zuen udal gobernu taldeak, berriki eginiko agerraldi bidez.

Plan berriak 2004tik indarrean izandako arau subsidiarioak ordezkatuko ditu. Aurreko plan orokorrak 1992an eta 1964an onarturikoak izan ziren. Orduko haien moduan, "udalerriaren etorkizuneko antolamendua zehazteko oinarrizko tresna" gisa definitu zuten EH Bildutik, Usurbilgo herri eta auzoen errealitate propioak aintzakotzat hartzen dituena. Horregatik, hiru lurralde eremu osatu dituzte (Aginaga, herri erdigune ingurua eta Zubieta-Txikierdi) eta "bakoitzerako proposamen integralak". Alegia, udal gobernu taldearen esanetan, "kasik, eskuartean hiru HAPO ditugula esan dezakegu".

Plan osoa (hobeto garatzeko onartu gabeko Zubietako Errota eremurako proposamena salbu) indarrean da eta eskuragarri duzue usurbil.eus Udalaren atarian. "Hirigintza ekofeministaren irizpideak kontuan hartu" eta "gertutasunean eta ingurumenaren eta herritarren zaintzan oinarritutako ereduan sakontzen du HAPO-ak". Hala, "Usurbil jasangarriagoa, inklusiboagoa, onuragarriagoa eta bizigarriagoa" eraiki nahi du, udal gobernu taldearen esanetan, "euskara garapen komunitarioaren ardatz izango duena, inor baztertu edo atzean utziko ez duena, herrikideak zainduko dituena eta usurbildarren arteko berdintasuna eta justizia soziala izango duena aspirazio gisa".

"GERTUTASUNEAN ETA INGURUMENAREN ETA HERRITARREN ZAINTZAN SAKONTZEN DU"

"715 ETXEBIZITZA BERRI ERAIKITZEA AHALBIDETUKO DU PLAN BERRIAK, %62A BABESTUAK IZANGO DIRENAK"

Hazkuntza orekatua

Etxebizitza garapenari dagokionez, "usurbildarren beharrei erantzuteko, eredu desberdinak" proposatzen ditu HAPO-ak, aurreko planek sustaturiko "gehiegizko eraikuntza" ardatz izandako hiri garapena mugatzearekin batera. Horregatik, %15ean gutxitu dute etxebizitzen eraikitzea hurrengo 15 urteetan. 715 etxebizitza berri eraikitzea ahalbidetuko du plan berriak, %62a babestuak izango direnak (%48 babes ofizialekoak, %14 tasatuak): ia %11 Aginagan, %1,40 Txokoalden, ia %9 Zubietan eta gainerakoa, herri erdigunean. "Hazkuntza modu orekatuan eta jasangarrian" egingo da, herritarrak lehenetsi eta "usurbildarren beharrak erdigunean jarrita, ez merkatu logika". Horrez gain, "udalak promozio desberdinetatik lortutako etxebizitzak ere alokairura bideratuko lirateke".

Etxe atariei dagokienean, "kale biziak ditu helburu HAPO-ak, ez zonalde erresidentzial hutsak". Kalitatezko espazio publikoak sortu nahi dituzte, "baldintza klimatiko egokiekin eta eguneroko elkarbizitza errazteko". Horretarako, "eraikinen beheko oinen tratamenduari garrantzia handia eman zaio", ekipamendu publikoekin, komertzioekin, edota bizilagunen arteko harremanak sustatzeko eraikinetako kanpo zein barne espazioekin. Horrez gain, "hiri sistema efizienteak diseinatu dira, baliabideen kontsumoa gutxitu eta energia berriztagarriak sustatzeko".

Landa eremuan ere, baserrietan etxebizitza gehiago sortzeko aukera izango da. Segregazio horietatik eratorritako etxebizitza berriek prezio tasatua izango dute, EH Bilduren udal gobernu taldetik aditzera eman dutenez. Espekulazioari bidea ixteko

⟶ babestutako etxebizitzak izango dira, udal gobernu taldearen esanetan.

Babes bereziko eremuak

Lurraren zaintza babestu eta hiri antolamendua jasangarria sustatuko du plan berriak. 2004tik urbanizagarri izandako hainbat lurzoru "ez urbanizagarri" gisa jaso ditu HAPO berriak. "18 hektarea gutxitu da, sailkatuta zegoenaren %9,4a izanik. Hiri garapenetik babestutako lur horietako asko balio agrologiko altuko lurzoruak dira eta nekazaritza erabilerarako babestuko dira". Horrez gain, "babes bereziko gune izendatu dira udalerriko natur balio handiko eremuak. Plan honek Usurbilgo ura babesteko neurriak ere proposatzen ditu"; besteak beste, Erroizpe ingurua babestea edota Oria inguruak lehengoratzea Zubietan, Zingirategin eta Zumartegin.

Energia kontsumoa murriztu, eraginkortu eta autokontsumoa sustatzeko energia berriztagarrien instalazioak erraztuko ditu HAPO-ak, eraikitako eremuak lehenetsiz. "Usurbil 0.0" bidean, hondakinak murriztu eta berrerabiltzea eta "hondakinak ahal dela bertan tratatzea bultzatuko da". Herri ondarea babestuko da, "katalogatu berri da Aranzadirekin".

Plan berriak, gainera, mugikortasun "jasangarria, unibertsala eta inklusiboa" sustatuko du. Udalak onartu berria duen Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integralaren ildotik, oinezko eta bizikleta bidezko herrigunearen eta auzuneen arteko lotune hobeak eta irisgarriagoak, lau igogailu berri eraikitzea (hiru jada eraikiak, laugarrena Kalezarko haur eskola atzealdekoa, Portalmuxuberakoa litzateke), N634 errepidean segurtasuna hobetu eta trafikoa baretzeko eskuhartzeak (biribilgune bana Txokoaldeko nahiz herri erdiguneko sarbideetan edota Txikierdiko



Hurrengo hamarkadatik gorako etorkizuna marraztua du, indarrean den HAPO berriak.

bidegurutzearen birmoldatzea) edota garraio publikoa indartzea aurreikusten du HAPO berriak.

Jarduera ekonomikoei dagokienean, "helburua da, okupaturiko industria eremuak berrantolatu eta berreskuratzea, jarduera ekonomiko berriak erakartzeko, ahalik eta lurzoru berri gutxien okupatuz". Horrekin batera, tokiko merkataritzaren garrantzia aitortzen du HAPO-ak. Merkataritza gune handi berririk eraikitzea nahiz egungoa handitzea eragotziko du. Horrez gain, "lehen sektorearen garapen ekonomikoa sustatzeko lurrak nekazaritza erabilerarako babestea bermatzen da".

Usurbil herri zaintzailea izateko bidean, bestalde, HAPO-ak "komunitatea zaintzeko espazioei garrantzia handia ematen die. Hartara, ekipamendu komunitario sarea handitu eta espazio publikoen eta berdeguneen sarea ere indartzen da" herrigunean eta auzoetan.

"KOMUNITATEA ZAINTZEKO ESPAZIOEI GARRANTZIA HANDIA EMATEN DIE HAPO-AK"

Ibilbide luzea

EH Bilduren udal gobernutik jakinarazi moduan, 2014an hasitako ibilbide luzeko dokumentua da egun indarrean dena. "Dokumentu honen ernamuinean badago herritarren parte hartzea eta adostasuna", Usurbilgo alkatearen esanetan. Batetik, "nabarmentzekoa da, hainbat eremu garrantzitsuenetako lurjabeekin udal honek lortutako hirigintza hitzarmenak"; Zapategi, Olarriondo, Elutx eremuetakoak nahiz Kalezarko igogailua edota tren-geltoki berria eraikitzea ahalbideraturikoak.

Bestetik, hamaika parte hartze prozesu egin da herritarrekin plan orokorra diseinatzeko; idazketa abiatzeko

"DOKUMENTUAREN ERNAMUINEAN BADAGO HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA ADOSTASUNA"

"Oraina da geroa" izenekoa 2014-15 artean, espazio publikoaren eta mugikortasun iraunkorraren plana idazteko "Usurbil Kale Irekiak" 2016an, Aginagako herrigunea antolatzeko prozesua 2017-18 artean, "Guk Zubietan zer?" izenekoa 2020an edota auzoa integralki landutako "Santuenea Elkarlanean" 2021-22 artean. Paraleloki, HAPO-an jasotako hainbat azterlan bideratu dituzte: diagnosia eta ingurumen aurrediagnostikoa (2014), aurrerakina eta hasierako dokumentua (2015), "Errioa Bizi!" Oria ibaiaren paisaiarako ekintza plana (2016), genero perspektibari eta espazio publikoari lotutakoa (2017), etxebizitzen azterketa (2020), genero inpaktuari buruzko eta ELE hizkuntza inpaktuari buruzko azterlanak (2020-21), Ingurumen Azterketa Estrategikoa, Inpaktu Akustikoaren Azterlana eta ondare azterketa (2022).

2022ko urrian hasieraz onartu zuten HAPO-a. 2024ko ekainean, aurretik aurkeztutako alegazioei erantzun zien udalbatzak. 2025eko urtarrilean behin-behinean onartu zuten. Beharrezkoa zen Foru Aldundiaren behin betiko onespena heldu da orain.



Duela hiruzpalau urte Ezkeltzun antzeko egitasmoa burutu nahi izan zuten eta orduko proposamena ezerezean geratu zen. ARGAZKIA, ARTXIBOKOA.

Bi aerosorgailu eraikitzeko administrazio-baimena eskatu dute

"Aitz eta Andatz izeneko kluster eolikoa" Aiako, Zizurkilgo eta Usurbilgo udal-mugarteetan kokatu nahi dute.

ARITZ LASARTE

"Aitz eta Andatz izeneko kluster eolikorako" administrazio-baimena galdegin du Alerion Spain, SL. enpresak. Hala jakinarazi zuen, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako lurralde-ordezkariak, azaroaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko idatzian.

Ordutik, hogei eguneko epealdia zabalik izango da, "parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek lehia-eskabidea aurkeztu dezaten", GAOn irakurri daitekeenez. Iragarki hori plazaratu zuten, "lehia posible baten ondorioetarako".

Bi aerosorgailu ipintzeko baimen eskaera

"Aitz eta Andatz izeneko kluster eolikoa" Aiako, Zizurkilgo eta Usurbilgo udal-mugarteetan kokatu nahi dute. Guztira, bi haize-sorgailu eraikitzeko administrazio-baimena galdegin du Alerion Spain, SL.-ek, 9,9 megawatteko potentziarekin.

9,9 MEGAWATTEKO POTENTZIA IZANGO DUTEN BI HAIZE-SORGAILU ERAIKITZEKO BAIMENA ESKATU DUTE

Enpresa berak iaz Aramaio eta Eskoriatza artean gauza bera, 9,9 megawatteko potentziadun bi aerosorgailu eraikitzeko eskaera egin zuen baita, Espainiako Gobernuak eremu berean "Statkraft enpresak aurkeztutako Itsaraz proiektua" atzera bota ostean.

Geure inguruan ere antzeko egoeran gara. Gogoan izan, Green Capital Development enpresak 2022ko urtarrilaren 24an "aurretiazko administrazio-baimena" eskatu zuen Ezkeltzun parke eolikoa eraikitzeko. 200 metroko lau aerosorgailu eraiki asmo zituzten. Horrek ekar zitzakeen kalteez ohartarazi eta egitasmoa gerarazteko sortu zuten Andatza-Ezkeltzu Bizirik herri plataforma. Gaia pil-pilean zela, besteak beste, txangoa antolatu zuen 2023ko ekainean eremura bertara. Parke eolikoak "babestu nahi dugun ondare natural eta kulturala" arriskuan jar zezakeela salatu zuten bisita gidatu hartan. Izan ere, "paisaia eta kultura aldetik balio handikotzat" jotzen den eremuan eraiki asmo zuten instalakuntza hori.

ENPRESA BERAK IAZ BESTE BI AEROSORGAILU ERAIKITZEKO ESKAERA EGIN ZUEN ARAMAION ETA ESKORIATZAN

Ezkeltzuko kasua

Ezerezean geratu ziren aurrekariak hortaz, badira. Ezkeltzukoak zenbait urteetako bide gorabeheratsua izan ostean, momentuz aurrera ez zuela joko jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzak Usurbilgo Udalari 2024ko azaroaren 19an kaleraturiko ebazpenaren bidez.

Hainbat ekitaldi, Euskararen Egunaren atarian

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, eragile ezberdinak hasi dira ekitaldiak iragartzen.

ARITZ LASARTE

Eragile ezberdinek antolaturiko Euskararen Asteari emango diote hasiera azaroaren 21ean, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren "Musu bete urte" izeneko ikuskizun berriarekin. Sarrerak salgai dituzue jada. Aipatu zikloari Aginagako Euskararen Galak emango dio segida:


Euskararen Astea

Azaroak 21 larunbata, Usurbilen

• 17:00 Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren "Musu bete urte" ikuskizuna Oiardo kiroldegian.
• Zehaztasunak: "Musuz bete ditzagun udazkena, negua, udaberria eta uda. Musuz urtea eta bizitza. Musuekin gure lurra ere biraka jartzen delako, kantuan eta dantzan. Eta gu berarekin! Ze zapore du marigorringo baten musuak? Konta daiteke urte oso bat musutan? Zatoz pailazookin eta jakingo duzu!".
• Sarrerak: 8 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
• Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea eta Udala.

Azaroak 28 larunbata, Aginagan

• 22:00 Euskararen Gala Aginagako Eliza Zaharrean.
• Zehaztasunak: "Gurean, urteroko hitzordu bihurtu den festa: bakarrizketak, musikariak, dantza eta askoz gehiago!".
• Musika: Anne Etchegoyen, Anuk eta Elene, Patrice Dumora (Akelarreko abeslaria).



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, Leire Bilbao idazleak eta Maite Mutuberria ilustratzaileak osatu dute "Musu bete urte" izeneko argitalpena.

• Antzerkia: "Heroiaren mina" (Gaizka Chamizo).
• Dantza: Klake dantzariak.
• Bakarrizketak Txiki, Idoia Torregarai, Janire Atxurraren eskutik.
• Magoa: Asier Kidam.
• Marrazkilaria: Unai Gaztelumendi.
• Sarrerak 10 eurotan eskuragarri, usurbilkultura.eus plataforman.
• Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra.
• Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

AGINAGAKO EUSKARAREN GALARAKO SARRERAK USURBILKULTURA.EUS WEB ORRIAN SALDUKO DIRA

Mikel Urdangarinek Aginagako Eliza Zaharra bete zuen

ARITZ LASARTE

Bizimaña herri kooperatibak antolaturiko kontzertuak Aginagako Eliza Zaharra bete zuen azaroaren 6an. Aurkezpen gutxi beharreko Mikel Urdangarinen emanaldiak goraino bete zuen gunea. Bere "Uhina" biraren baitan, Aginagan egin zuen geldialdia.

Azaroaren 28an, Euskararen Gala Eliza Zaharrean

Mikel Urdangarinen kontzertua ez da izango, abiatu berri dugun hilabete honetako hitzordu programatu bakarra Aginagako Eliza Zaharrean. Izan ere, abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat eragileek antolaturiko Euskararen Astearen baitan, Euskararen Gala estimatua ospatuko da hilaren 28an, gaueko 22:00etan. Eliza Zaharra Elkargunearen gaualdirako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dira 10 eurotan,



Aurreko asteburuan bakarka aritu zen Eliza Zaharrean.



Usurbilgo EH Bilduren Mahai Politikoak Gari Udabe proposatuko du hautagai gisa.

Gari Udabe Pagola, EH Bilduren alkategaia

Agurtzane Solaberrieta Mesa ez da EH Bilduren alkategai izango 2027ko maiatzaren 23ko udal hauteskundeetan. EH Bilduren Mahai Politikoak Gari Udabe Pagola zubietarra proposatu du kargu horretarako.

Usurbilgo EH Bildutik jakinarazi moduan, 1975ean jaiotako zubietarra kazetaria da ikasketez eta ofizioz. "Kazetaritza eta komunikazioaren arloan izan duen ibilbide profesional bikainarengatik, taldean lanean aritzeko duen trebetasunagatik eta herritarrekin hartu-emanetarako duen gaitasunagatik proposatu du hautagai gisa", Usurbilgo EH Bilduren Mahai Politikoak. "Hurbileko pertsona da, gaztea eta gaitasun handikoa, eta, gainera, komunikaziorako berezko dohaina du eta herriaren eta usurbildarren ezagutza handia. Gisa honetako ardura bat betetzeko indargune ugari ditu, beraz, EH Bilduren hautagaiak". Horregatik guztiagatik hautatu du koalizioaren mahai politikoak zubietarra alkategai gisa proposatzea. Udabek "egindako proposamenari ilusioz heldu dio. Herriarekiko konpromisoak eta lan egiteko gogo eta ilusioak bultzatu du erronka honi baietz esatera".

EH Bildutik argi dute, batetik, "Usurbilgo behar eta erronka erraldoiei erantzuten jarraitzeko lemazain egokia" izango dela Udabe eta "oso ongi konektatuko duela alkate paperetik herriko eragile eta herritarrekin. Eta hori ezinbestekoa da EH Bilduren proiektua gauzatzeko. Izan ere, gurea herritarren behar eta kezkei erantzuteko proiektua da. Eta urteotan, Usurbilgo EH Bilduk erakutsi duen moduan, konpromiso osoa hartu nahi dugu datozen hautetsiekin norabide berean jarraitzeko".

"Pertsona bikainak hartuko du nire lekukoa"

Agurtzane Solaberrieta Mesak egungo alkateak adierazi zuenez, "pertsona bikainak hartuko du nire lekukoa. Gari Udabe Pagolak nire babes osoa du". Eskertza helarazi nahi izan zion zubietarrari. "Mila-mila esker aurrera urratsa egiteagatik!". Bueltan, alkategai proposatu berriaren eskertza jaso zuen.



Aurreko larunbatean, EAJ-k Kongresurako Gipuzkoako hautagaitza aurkeztu zuen.

"EAJ-PNV da Euskadi defendatzen duen bakarra"

Talde jeltzaleak larunbatean eman zituen ezagutzera Gipuzkoatik Kongresurako eta Senaturako hautagaiak, eta Vox-i planto egingo diola bermatu du. Kongresurako zerrendan Ivan Iriondo Usurbilgo zinegotzia ageri da.

EAJ-PNVk aurreko larunbatean eman zituen ezagutzera azaroaren 29ko hauteskunde dealdiari begira, Gipuzkoatik Kongresurako eta Senaturako aurkeztuko dituen zerrendak. Maribel Vaquero Kongresurako zerrendaburuak orain arte bezala jarraituko duela azaldu zuen, euskal herritarron interesak defendatzen: “Pankartak erretiratzen direnean eta botoen zenbaketa amaitzen denean, hiritarren arazoek, beharrek gure ate aurrean jarraituko dute, ate joka. Eta EAJ-PNVk hor jarraituko du, lanean”.

Maribel Vaqueroren esanetan, EAJ-PNV izan da eta da bermea “PP-Vox koalizioari aurre egiteko eta, aldi berean, “gu izan gara euskal etxea eta bertan bizi diren guztiak zaintzeko lana egin dugunak”. Talde jeltzalearentzat, “gauza biak eskutik doaz. Euskadi abiapuntu eta helmuga dugulako”.

EAJ-PNV “euskal lurrean sustrai sendoak dituen arbola” dela nabarmendu eta gero, “gainerako alderdiak estatuko beste alderdien sukurtsalak baino ez dira”, ohartarazi zuen Vaquerok.

"PP eta Vox txanpon beraren alde biak dira"

PSE-EEk Ebro ibaia zeharkatzen duenean,"PSOE" bihurtzen dela adierazi zuen. PP eta Vox aldiz, "txanpon beraren alde biak dira. Izan ere, PPk Gipuzkoan Senaturako hautagaitzarik ere ez du aurkeztu eta botoa Vox-entzat eskatu du”. Eta azkenik, EH Bildu “PSOEren bidaidea" dela dio hautagai jeltzaleak, "Sánchezek esaten duen guztia txalotzen duena, beren proposamenekin euskal etxearen burujabetasuna ahultzen badute ere. Madrilen beste euskal diputatu batzuk egongo dira, baina Euskadi defendatzen duen bakarra, Euskal Talde bakarra, EAJ-PNV da”, azaldu zuen Maribel Vaquerok.

Euskadiko hautesleei zuzenduz, euren konfiantza zeinengan jarriko ote duten galdegin zuen,“zainketei, industriari, ekonomiari, etxebizitzari, lehen sektoreari edo pentsioei buruzko erabakirik onenak hartzeko”.

Askotariko jatorrien bilgunea izan da Mundualdia

Herritarren arteko elkar ezagutzan sakontzeko aukera ederra eskaini zuen asteburuko Mundualdiak.



Mundualdiko antolatzaileak eta parte hartzaileak, hasiera ekitaldian.

Jatorri aniztasuna jaialdian bilakatu zuen Mundualdiak beste urte batez, iragan asteburuan. Askotariko sorterrietako herrikideak batu, elkartu eta hartuemanetan jarri zituen. Hala, herrikide guztion elkar ezagutzan sakontzeko aukera izan zen. Izan ere, Udalak, Aniztasun Kontseiluak eta herrikide gehiagok antolaturiko hitzorduaren hasiera ekitaldian, alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak adierazi moduan, "jatorri desberdinetatik etorritako herritar berrien kopuruak gora egin du nabarmen, eta ondorioz, identitate aniztasunaren kudeaketa, erronka handia da gure herriarentzat". Bide horretan, Mundualdiak herrikide guztien berdintasuna aldarrikatu eta "lankidetza eta elkarbizitza espazioak" sustatu nahi ditu.

Aniztasunari gorazarre

"Nortasun, kultura eta izateko modu guztiek lekua izateko" babeserako harrera herria, gizartea eraikitzea galdegin zuen Aniztasun Kontseiluko kideetako batek, "aniztasuna aitortua, errespetatua eta ospatua" izango dena. Hitzordua sorterri askotariko herrikideek mimo handienarekin sukaldaturiko jakien dastaketa arrakastatsuak girotu zuen. Askotariko postuen artean zen Kolonbia. Iruñeatik etorritako "Integración Sin Fronteras" elkarteko dantzarien eta Walter Sanchez zein haren musika taldearen eskutik, herrialde hartako kulturan barneratzeko aukera izan zen. Egunari, munduko jolasekin ekin zioten Zirimara plan bereziaren bidez.

"IDENTITATE ANIZTASUNA KUDEATZEA, ERRONKA HANDIA DA GURETZAT"



Frontoia bisitariz betea, Mundualdiko jakien dastaketan.



Askotariko herritarren sorterriak bildu zituen Mundualdiko jakien dastaketak.



Kolonbiako kulturan barneratzeko aukera eskaini zuen Mundualdiak.



Munduko jolasekin ekin zioten Mundualdiari.



Txalaparta Festaren antolatzaileak, aurtengo edizioko kartela eskuartean dutela.

"Jendea etor dadila txalaparta jo nahiz ezagutzera"

JURGI FUENTES ETA TERESA JAREÑO TXALAPARTA FESTA

Txalapartaren bueltako kultura plazaratuko du Jexux Artze K.E.-k azaroaren 14rako antolaturiko jaialdiarekin. Aurtengo edizioak senidetzea izango du ardatzetako bat.

ARITZ LASARTE

Usurbil eta Oiartzun ordezkatuak daude elkarrizketa honetan. Ez da kasualitate hutsa?

Jurgi Fuentes: Txalapartarena, oso mundu txikia da eta horren inguruan gabiltzanok ez gara hainbeste. Hemen, gainera, suertatu da, Txalaparta Txokoan Oreka TX-koak egon direla. Talde horretako kideetako bat, Harkaitz Martinez de San Vicente, kasualitatez Oiartzungo irakaslea ere bada eta horrek erraztu du aurreko urteetan, bertako ikasleak gurekin egunpasa egitera etorri izana. Nolabait, bi herrion arteko senidetzea ofizialtzeko aukera ere izan daiteke. Izan ere, erreferenteak baditugu gure herrian, Jexux eta Joxan Artze. Haiekin batera hasi zen Juan Mari Beltran. Juan Mari lehen ediziotik izan dugu hemen, hitzaldiak eman eta iaz kontzertua eskaintzen. Oiartzungo Txalaparta Eskola ere bere zuzendaritzapeko herri musika eskolaren barruko ikasgaia da.

"BI HERRION ARTEKO SENIDETZEA OFIZIALTZEKO AUKERA ERE IZAN DAITEKE"

Harreman horretan pauso gehiago eman nahi dituzue?

J.F.: Usurbilgo ikasleen emanaldiez gain, Oiartzungoen saioak egongo dira. Aurrera begira, asmoa da, Txalaparta Festa bera txandaka antolatzea; urte batean Usurbilen eta hurrengoa Oiartzunen, bi herrietako antolakuntza taldeekin.

"ASMOA DA, TXALAPARTA FESTA TXANDAKA ANTOLATZEA USURBILEN ETA OIARTZUNEN"

Hala, herri bietako proiektuak indartzeko.

Nolatan eman asmo duzue urrats hori?

J.F.: Batez ere, kalean jotzeko instrumentua da. Lehen pausoak emateko eremu informalak derrigorrezkoak dira. Txalaparta Festan ere txalaparta irekia egoten da goizean. Lehenengo urteetan ikusten genuen nola kostatzen zen jendea hurbiltzea. Halako dinamikekin martxan jartzea errazagoa da.

Albokari dagokionean ere badira lotune gehiago?

Teresa Jareño: Bitxia da nola gauden albokari asko txalaparta ikasten, ni neu txalaparta ikaslea naiz. Txalaparta munduko jende askok du interesa albokaren inguruan. Sortzen dira sinergia horiek, gabiltzala hartuemanean aldiro. Duela lau urte hasi nintzen alboka klaseak ematen Zumarten eta jada, bertako ikasgai ofiziala da alboka. Ni naiz baita Oiartzungo Herri Musikaren Txokoko alboka irakaslea. Juan Mari Beltranek sortu zuen museoa eta dokumentazio zentroa. Horrekin batera sortu zuen Herri Musikaren Txokoa, herri musika instrumentuak ikasteko musika eskola, Gipuzkoa mailan dagoen bakarra.

Alboka txalapartarekin hartueman estuan ikusi dugu Txalaparta Festen aurreko edizioetan. Zer nolako ekarpen egiten du?

T.J.: Biak dira kalean jotzeko instrumentuak. Txalaparta Festan bada une aproposa ere, txalapartaren alderdi erritmiko horri sartzeko alderdi melodikoagoa eta baita girotzeko txalaparta joaldien arteko uneak.

Zer nolako bizitza du albokak herriotan?

T.J.: Antzeko gabiltza bi eskoletan. Geroz eta ikasle gehiago daude, interesa dago halako instrumentuen inguruan.

⟶ Kalera ateratzen saiatzen gara. Oso lotuak gaude baita herriko mugimenduetara, festetan parte hartzen dugu eta pixkanaka, ezagunago egiten eta zabaltzen goaz instrumentua.

Ikasi bai baina gero, plazara ateratzeko.
T.J.: Ikasi, kalean jotzeko bai. Instrumentuok kalean ikusgarri egin eta kalean jotzeko dira.

Horrek transmisioan eragin dezake, gainera?
T.J.: Dudarik gabe. Gainera, kalean ikusteak ere eragiten du jendeak ezagutzea eta jendeak ikasi nahi izatea.
J.F.: Bitxia da. Oiartzungo albokariak lehen urtean ekarri genituen musikariak behar genituelako kaleak girotzeko eta urteekin bihurtu dira, Usurbilgo albokarientzako lehenengo plaza errazteko talde batean. Teresa beti saiatzen da Usurbilgo alboka ikasleak egun horretan ateratzen. Oiartzungoek eramaten dute haria eta hemengo ikasle bakoitzak dakizkien abestiak jotzeko aukera izaten du kalean.

Zer moduzko osasuna du Txalaparta Festak?
J.F.: Nolabait, errotu dela esan dezakegu. Urtero saiatu izan gara zer edo zer desberdina txertatzen egitarauan. Aurten, Oiartzunen eta Usurbilen senidetzea izango da nobedadeetako bat. Bestalde, goizeko Txalaparta Irekia saioan adibidez, ikusi da nola taldetxoak sortzen diren eta jendea jotzera animatzen den. Hasieran hutsik egoten zen hainbat uneetan. Hori seinale ona da.

Ikastaroetara kide gehiago erakartzeko amua izan daiteke.
J.F.: Lagungarria da. Ikasle talde bat beti mantentzen da.

Erraza zaizue jendaurrean jotzea?
J.F.: Oso aberasgarriak dira jendaurreko emanaldiak. Ohiko urduritasuna kenduta, esker oneko instrumentua da jotzeko.
T.J.: Espazio askoz goxoagoak dira jotzeko, eskenatokiak baino. Beldurra izaten da hasieran, baina ikasten ari gara guztiok. Beste seriotasun bateko plazetara joateko esperientzia izateko aukera ederra da.


Txalapartariak eta albokariak elkarrekin saioa eskaintzen, iazko festan.

Publikoa ere adi egon ohi da.
J.F.: Kalean aukera handirik ez da egoten entzuteko. Txalaparta ekitaldi batzuen hasieran edo amaieran jotzen da, baina beti bigarren maila batean ikusten da. Egun horretan erdigunean jartzeak bestelako arreta jartzeko aukera ematen du. Maila desberdinetako joaldiak ikusi daitezkeenez, ikus daiteke zer zailtasun duen.
T.J.: Proposamen ezberdinak ezagutzeko aukera ematen du.

"OHIKO URDURITASUNA KENDUTA, ESKER ONEKO INSTRUMENTUA DA JOTZEKO"

Nolakoa izan ohi da instrumentuon ikasketa prozesua?
J.F.: Trebatzearekin lortzen da gaitasuna. Garrantzitsua iruditzen zait, urduritasuna kentzea eta lasai jo ahal izatea. Horretarako, konfiantza osoa eduki beharreko pertsonarekin jotzea da onena.
T.J.: Gustura eta lasai jotzea da garrantzitsuena. Ikasleak gara guztiak, pixkanaka ikasten eta hobetzen ari gara. Hanka sartuta ere ez da ezer gertatzen. Musika gozatzeko dago.

Ikus-entzuleen babesa hor egoten da ezta?
J.F.: Zorte hori dugu. Instrumentu minoritarioak dira baina badoaz zabaltzen. Usurbilen behintzat, osasuntsu dago.
T.J.: Geroz eta jotzaile gehiago dagoela esango nuke, geroz eta proposamen berri gehiago daude. Bide berriak irekitzen goaz.

"GEROZ ETA PROPOSAMEN BERRI GEHIAGO DAUDE. BIDE BERRIAK IREKITZEN GOAZ"

Txalaparta Festara begira zer esan nahiko zenukete?
T.J.: Jendea animatu eta etor dadila txalaparta jo nahiz ezagutzera. Giro polita egongo da.

Txalaparta Festa

Azaroak 14, larunbata
11:45 Herri erromeria, Mikel Laboa plazan (euria eginez gero, Askatasuna plazan): adardeia, Zuaznabartarrak, Goikoetxeatarrak, Zabalegitarrak, txalaparta ikasleen emanaldia, albokariak (Oiartzungo Albokalteak eta Usurbilgo Adarbakarrak), txalaparta irekia, txorizo eta sagardo banaketa.
14:00 Kalejira, albokariekin, Patri jatetxeko bazkarira.
Bazkarian zehar, txalaparta irekia.
18:30 Oiartzungo Makilakixkirekin senidetzea. Olanoenea plazatik hasita kontzertuak herrian zehar: Jexux Artze Txalaparta eskola, Makilakixki, Esku-Txa hirukotea Txalaparta &+.
20:00 Bihotx kontzertua, Dema plazan.
Antolatzaileak: Jexux Artze K.E, 650 Usurbil Bizi.

Kultur erakusleiho oparoa, Booktegiren jaialdia

Literatura guztion esku sarean jartzen diharduen Booktegi elkarteak askotariko ekitaldiak antolatu zituen berriki.



Ruper Ordorikak solasaldi batean hartu zuen parte.

Kultur erakusleiho ederra izan zen bosgarren urtez segidan, izen bereko elkarteak urriaren 30etik azaroaren 1era antolaturiko Booktegi jaialdia. Ruper Ordorika izan zuten protagonista nagusia. Bi egunez segidan, Sutegin oñatiarrarekin biltzeko aukera izan zen; lehenbizi, bere ibilbideaz, sorkuntza prozesuaz, kulturaz aritzeko solasaldia antolatu zuten auditorioan eta biharamunean, kontzertua eskaini zuen.

Gogoan izan, iaz eginiko "Rupertorioa", bere sorkuntza lanen errezitaldiaren ondotik heldu da aurtengo bisita bikoitza. Iaz, Ordorikarekin eginikoa errepikatu dute oraingoan Anarirekin. Bere abesti eta hitzen errezitaldia eskaini zuten hainbat lagunek azaroaren lehenean, "Anariketa" hitzorduan.

Sorkuntzaz blai

Hitzorduoz gain, ez zen falta izan aurreko edizioetatik bueltan etorritako ekimenik; batetik, gai zehatzen bueltan (edizio honetan, sotoa eta ganbara) sortutako idazlanak aurkeztu eta partekatzeko "Elkarri Irakurriz" saioa. Ipuinok booktegi.eus atarian izango dituzue irakurgai. Udarregi ikastolako LH 5. mailakoek "Booktuber" roletik hainbat libururi buruzko aholkuak eskaini zituzten bideo proiekzio bidez. Artean, udal liburutegian Arbaso Eguna mahai-jolas kolaboratiboan parte hartu zuten. Azkenik, Mihise herriko taldearen "Ahaldatu" lan berriaren ikus-entzunezkoa proiektatu zuten.

"RUPER ORDORIKA IZAN ZUTEN PROTAGONISTA NAGUSIA BOOKTEGI JAIALDIAN"


"Anariketan" jardundako Oiartzungo musikari taldea.


Udarregiko LH5eko "Booktubers"-ak aurkezpen amaierako agurrean.


Elkarri irakurri zizkioten, albokoak sortutako ipuinak.


'Arbaso Eguna' mahai-jokoarekin entretenitu ziren Sutegin.



Apirilean aurkeztu zuen UEMA-k "Esnatu" dinamika hainbat eragileren atxikimenduarekin. UEMA

"Esnatu Usurbil", euskara biziberritzeko gogoeta abiatzear

"Herrian euskara biziberritzeko estrategia zehazteko helburua" duen "Esnatu Usurbil" ekimena aurkeztuko dute azaroaren 18an.

ARITZ LASARTE

"Era guztietako eragileak ahalduntzea eta eremu euskaldunek bizirik iraun dezaten haien konpromisoak sustatzea" da UEMA-ren "Esnatu" dinamikaren helburua. Beste hainbat herrietara bezalaxe, Usurbila heldu da. Urria amaierako osoko bilkuran udalbatzak gai horri buruzko mozioa EH Bilduk eta EAJ-k aho batez onartu ostean, azaroaren 18an aurkeztuko dute aipatu ekimena arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Deitzaileek kaleraturiko kartelak dioen moduan, "orain arte egin duguna eginda, ez dugu aurrera egingo; beraz, estrategia bateratu baten premia dugu". Horregatik galdetzen dute, "zer egingo dugu Usurbilen euskara biziberritzeko?". Galdera horri erantzuten saiatu nahi du, "Esnatu Usurbil" dinamikak. "Herrian euskara biziberritzeko estrategia zehazteko helburua du". Dinamikaren sustapenerako talde eragilea osatu dute Usurbilgo Udalak, NOAUA! Kultur Elkarteak, Etumeta AEK euskaltegiak, Udarregi ikastolak eta Elhuyarrek, Usurbilgo udalerria kide duen UEMArekin batera. Hilaren 18ko hitzordua, askotariko eragileekin eta herritarrekin abiarazi nahi duten dinamika aurkezteko baliatuko dute.

"Parte-hartze prozesuaren asmoa da euskara biziberritzeko garatu beharreko herri estrategia komunitarioa zehaztea eta definitzea, hamar urteko ikuspegiarekin. Izan ere, argi erakutsi du Siadecok 2025ean egindako proiekzio demolinguistikoak: euskararen alde orain arte egiten ari garena egiten jarraitzen badugu, euskarak bizi duen geldialdia galera fasean sartuko da. Usurbil aldatu egin da soziodemografikoki, eta horrek eragin soziolinguistikoa du. Herriko gaur egungo datuak esku artean dituzte: horiek ere azaroaren 18an ezagutaraziko dituzte", aurreratu dute deitzaileek. Gaur egungo egoeraren berri eman, hausnartu eta euskara biziberritzen segitzeko datozen urteetan lehenetsi beharreko lan-ildoak erabaki nahi dituzte.

"HERRIAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO ESTRATEGIA ZEHAZTEKO HELBURUA DU"

"URTEOTAN LEHENETSI BEHARREKO LAN-ILDOAK ERABAKI NAHI DITUZTE"

Hiru fase

Talde eragileak hiru fasetan landuko du ekimena. Hasteko, "talde elkarrizketa berezituak egingo dituzte: hainbat alorretako egitasmoetan parte hartzen ari diren herritarrak elkartuko dituzte, eta euskararen egoeraz, beren hizkuntza-bizipenez eta herriko egitasmoetako hizkuntza-kudeaketaz jardungo dute, herriko egoera soziolinguistikoaren irakurketa osatzeko". Bigarrenik, "hiru gogoeta gune zabal eskainiko dira" urtarriletik udaberrira, etorkizunera begirako herri estrategia diseinatzeko". Azkenik, "herriko eragileek euskara biziberritzeko konpromisoak har ditzaten sustatuko da". Usurbilgo Udaletik jakitera eman dutenez, hilabeteotan, udal barruan "Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta hizkuntza irizpideak onartu" eta horiek inplementatzeko "udaleko sail guztiekin bilerak egin dira, eguneroko praktikari begira izan ditzaketen zailtasunak eta kezkak partekatzeko, eta bakoitzarentzako plan egokituak definitzeko helburuarekin. Horrekin batera, euskararen biziberritzea ahalik eta udal-jardun gehienetan lantzea da udalaren asmoa". Lanketa hau, herrira zabaldu nahi dute orain.



Mertxe Aizpurua Arzallusek ibilbide politikoa amaitutzat eman du. Usurbilgo alkatea izan zen, 2011-15 legealdian.

"Honaino iritsi naiz, gustura eta egindako lanaz harro"

MERTXE AIZPURUA ARZALLUS EH BILDUREN BOZERAMAILEA MADRILEN

2019az geroztik, EH Bilduren ordezkaria izan da Madrilgo Diputatuen Kongresuan. Bere ibilbide politikoa amaitutzat eman du Kalezarkoak.

Ibilbide politikoa amaitutzat ematea aspaldi hartutako erabakia izan da?

Nire bizitzan halako epealdiak finkatzeko joera dut. Garbi neukan legegintzaldi horrekin bukatuko nuela ibilbide politikoa eta hala adierazi nuen. Honaino iritsi naiz, gustura eta egindako lanaz benetan harro sentitzen naiz.

2019az geroztik Madrilgo Diputatuen Kongresuan arituta, bada bereziki harro sentiarazi zaituen egitasmorik?

Gauza asko dira. Esan daitezkeenen artean, oso harro nago adibidez, gutxieneko miseriazko pentsioak igo ahal izanaz eta horien artean, alargunenak. Gure ekimena izan zen. Bestalde, urteotako lorpena izan da, gurekiko, Euskal Herriarekiko pertzepzioa nabarmen aldatu izana. Gure ekimenen eta lan egiteko moduaren bidez, jendea jabetu da gauzak ez zirela haiei kontatu zitzaizkien bezalakoak. Uste dut era horretan errespetua irabazi dugula eta zenbait uneetan, begirunea ere jaso dugula esango nuke. Izan ere, Kongresuan lan egiteko era oso modu zakarra, itsusia da. Guk beti hitza mantendu dugu. Gogoan dut hasierako urteetan harrituak geratzen zirela. Ez zuten sinesten guk esandakoa egingo genuenik. Baina esandakoa egin eta egin behar genuena beti esan dugu eta horrek fidagarritasuna eman digu. Ikusi zutenean benetan hala zela gure izateko era eta jokatzeko modua, hortik aurrera gauzak askoz hobeto joan ziren. Gure lan egiteko era, ez da batere bereizten, hemen, Euskal Herriko udaletan eta beste erakundeetan egiten dugun lanarekiko. Lan egiteko, mundu honetan egoteko modua da EH Bildurena eta hori zabaltzen dugu. Hor dago beste gakoetako bat. Aitortza hortik dator eta aitortza horretatik Euskal Herriarekiko eta Euskal Herrian gertatu denarekiko ikuspuntua ere aldatzea lortu dugula uste dut Madrilen. Sinesgarritasun horrek Euskal Herriarentzat lorpen dezente eskuratzera eraman gaitu.

"ESANDAKOA EGIN ETA EGINDAKOA BETI ESAN DUGU. HORREK FIDAGARRITASUNA EMAN DIGU"

Eztabaida asko eta erabaki gutxi hartzen duen irudia erakutsi zaigu Diputatuen Kongresuaz. Han erabakitakoak eragina du, ordea, gugan.

Gugan eragin handia dute. Neurri sozial asko eta asko horren mende daude. Hemen eskumen asko ditugu, baina egia da estatuak markatzen dituela ildoak garrantzia handiko gaietan: pentsioetan, gutxieneko soldatetan... Jendeak ikusi du gauzak lor daitezkeela, Euskal Herriaren alde egin daitekeela handik. Egia da, gure asmoa ez dela hor jarraitzea. Zenbat eta denbora gutxiago egon han, askoz hobeto. Izan ere, horrek esan nahiko luke burujabetza maila handiagoa izan eta ez dugula Madrilen mende egon beharrik, baina tamalez oraingoz hala da. Nik uste dut partida hori jokatu behar dela eta nolabait esateko, hori ere ikusaraztea lortu dugula. Gure jardunean egin duguna da, Euskal Herritarrengan pentsatu une oro eta bide batez, ezkerreko politikak aplikatzea lortu dugu. Ikusi da, gure jardunak izan dituela ondorio onak Euskal Herrian. Ondorioak beti dituzte han egindako politikek, baina uste dut ohituegiak ginela, maila handiko enpresei begirako jardunera. Hori ere gertatu da. Horrregatik han egon beharra aldarrikatzen segitzen dugu. Bestelako etorkizuna nahi badugu Euskal Herriarentzat, hor egoten jarraitu behar dugu eragiteko ultraeskuinari eta eskuinari ateak ixteko eta au-

rrerapausoak emateko bai autogobernuan eta neurri sozialetan. Baldintza sozialak hobetu behar dira. Asko egin dugu, baina oraindik asko dago egiteke.

Bada legealdi honetan, bukatu gabe utzitako lanik?
Zinemaren Legea. Eskuartean nuen. Lege horrek euskal ekoizleentzat onura handiak ekarriko lituzke.

Nolakoa izan da ultraeskuinarekin elkarbizi beharra Madrilen?
Erasoak etengabekoak izan dira. Osoko bilkura bakoitzean gure aurka egin dute, oso modu bortitzean gainera. Haien estrategia izan da gure onetik ateratzea, hori lortu nahi izan dute beti. Baina oso harro nago lortu ez izanagatik.

Hauteskundeak ate joka ditugun honetan, ultraeskuinaren mamua tarteko, kezkatua zaude egungo testuinguruarekin?
Zirkunstantziak tarteko, Madril arretagunea da, lehen ez zena. Kezkagarria da egoera, baina konbentzitua nago Euskal Herriak berriro ezetza borobila emango diela. Lehen arrisku bezala ikusten zen ultraeskuina. Egun, jada gobernatzen ari dira hainbat erkidegoetan eta jendea ikusten ari da zer egiten ari diren hezkuntzan, ongizatean zer nolako atzerakada ekartzen duten. Ultraeskuinak eta eskuinak gobernatuko balute Madrilen, herri honek jakingo du erantzuten.

Zer legoke jokoan? Eskubide asko bai behintzat.
Izugarri. Pertsona guztion eskubideak kolokan egongo lirateke. Hamarkadetako atzerapausoak izango lirateke. Horregatik, hauteskunde hauetan ez da izango jokoan bakarrik ultraeskuinari ateak itxi edo ez ixtea. Nazio gisa ere aurrerapausoak eman ahal izateko, norabide berria izateko aukera hor dago. Horregatik dira hain garrantzitsuak.



Ogibidez kazetaria da Mertxe Aizpurua Arzallus. Bere ibilbide profesionala ere amaitutzat eman duela jakinarazi digu.

Madrilgo esperientziaren ostean, nola oroitzen duzu Usurbilen alkate izan zineneko garaia?
Beti adierazi izan dut, zailena herriko alkatea izatea dela. Herriko alkatea edo zinegotzia izanda, zuzeneko ardura duzu eta arazoak zuzenean zuk konpondu behar dituzu. Madrilen, gauzak ondo joan daitezen lan egingo duzu. Baina udaletxe batean zu zara arduraduna denean. Ardura horrek zama handia du eta meritu handia, ez dena baloratzen. EH Bildun dugun balore handiena da, herritik gatozela, herrietan lan egiten dugula. Benetan balorea izan eta ardura gehien hartzen duten pertsonak dira herrietan, udaletan daudenak.

Legealdi amaieran dira udaletxean. Zer esan datozen udal ordezkari berriei?
Kontziente izan daitezela zer nolako garrantzia duen udaletan egiten den lanak. Herrietan egiten den lana da benetan, EH Bilduren bizkarrezurra. Herrietatik datorren indar guztiak sostengatzen gaitu, udaletan egiten den lanagatik.

"BETI ADIERAZI IZAN DUT, ZAILENA HERRIKO ALKATEA IZATEA DELA"

Alkatetza 2015ean utzi zenuenetik nola eraldatu da herria zure ikuspegitik?
Hamaika urteotan izugarri aldatu da eta onerako, ederrago dago. Usurbil beti herri oso bizia izan da eta bizitasun hori mantentzea, gaur egun garrantzia handikoa da. Era berean, gauza on bat badu herri honek eta hori politika publikoak dira, hiriginza aldetik nola zaintzen den herria. Hazten ari da baina era kontrolatu batean. Hala lortzen da herri nortasun hori mantentzea.

Zure ibilbide politikoaren amaiera aipatu da hedabideetan, baina ez zure ogibideari lotutakoa.
Bai, jada jubilatzera noa. Egin egunkarian lan egin nuen, gero Gara egunkarian. Nolabaiteko identifikazio politikoa bazegoen eta lerro editoriala erabat kokatzen zen nik pentsatzen nuenarekin. Gero, Usurbilgo alkatetza utzitakoan nire ogibidera bueltatu nintzen. Gero, berriro politikan sartu nintzen. Nire jardun profesionalak bertan ikasitakoa politika mailan aplikatzen lagundu dit. Ibilbide logiko bat egin dudala uste dut eta pozik nago alde horretatik.

"URTEOTAN IZUGARRI ALDATU DA HERRIA ETA ONERAKO"

Gararen lehen zuzendaria izan zinen, garai zailetan.
Egin egunkariaren itxiera oso bortitza izan zen, une gogorrak izan ziren haiek ere. Gararen zuzendaritza hartu nuen, ez genekien nola bukatuko zen, Eginen zuzendaritza ere kartzelaratu zuten eta. Halakoa izan da gure bizitza. Espero dezagun, aurrerantzean, lasaitasun gehiagorekin bizi ahal izatea.

Aurrera begira, zer asmo duzu?
Ez naiz aldenduko. EH Bildun lan egingo dut beste modu batera, kargurik gabe, agerraldi publikorik eta esposizio publikorik gabe. Une bat heltzen da, familian eta lagunartean lasaiago bizitzeko beharra dagoena.



Joanes Txueka Segurola eta Xuban Zubiria Elexpe, Zuberoako ikastolen aldeko ekimenaren sustatzaileak.

"Kanpainan parte hartzeko deia egin nahi genuke"

JOANES TXUEKA ETA XUBAN ZUBIRIA ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDEKO TALDEA

Zuberoako ikastolak laguntzeko otarren kanpaina abian dute. Elkartasun ekimena Usurbilen herriratzen duen taldeko ordezkariekin bildu da hedabide hau.

ARITZ LASARTE

Nolatan hasi zineten bat egiten kanpaina honekin?

Urteak dira Usurbilen bazela Zuberoako ikastolak babesten zituen taldetxo bat. Gabonetako saskien kanpaina eta aurretik, sagardo afari bat antolatu ohi du, bertako ikastolak sostengatzeko. Errelebo eske ari zen, Usurbilek Zuberoarekin izandako lotura eten ez zedin. Taldetxo horren segida gara. Ahal den heinean, Zuberoako elkartasun kanpainak herrian, Usurbilen ere presentzia izaten saiatzen gara.

Sagardo afaria aipatu duzue. Nolako harremantzea izaten da bertan?

Hemen kultura handiagoa dago festa giroan ekimenik sostengatu behar bada, afariak eta egiteko. Han agian, beste baldintza batzuk daudelako, sagardo afari honek presentzia handia dauka, ez egiten den lekuan bakarrik, Urdiñarben, baizik eta lurralde osoan, Zuberoan eta Behe Nafarroa aldetik ere jendea ere etortzen da. Bada lurraldeko euskaltzaleak elkartzeko lekua, euskal komunitatea batzeko unea da. Horrekin batera, hegoaldearen eta iparraldearen arteko lotura hori ere, modu mikroan bada ere, Usurbil Iparraldearekin eta Zuberoarekin eta Zuberoa Usurbilekin lotzeko bidea da. Bestalde, gustu handiz hartzen dute Usurbilgo sagardoa eta Usurbilgo boluntario taldek prestatutako afaria. Haiek ere etorri ohi dira Urdaira sagardotegian egin ohi dugun urteroko afarira.

"AHAL DELA, KANPAINAK HERRIAN ERE PRESENTZIA IZATEN SAIATZEN GARA"

"IAZKO EDIZIOAN, 2.800 SASKI SALDU ZIREN EUSKAL HERRI OSOAN. 110.000 EURO BILDU ZIREN"

Bertako ikastolak zer egoeretan daude?

Zuberoan bi ikastola daude; Alozeko Basabürüko ikastola eta Sohütako Eperra ikastola. Bitxikeria moduan, Sohütako ikastolaren eraikuntzan ere usurbildarrek parte hartu zuten. Bien artean, 110 ikasle daude. Saskien kanpainarekin egindako ekarpenak, eragina badu. Aurreko urtean, 2.800 saski saldu ziren Euskal Herri osoan eta gutxi gorabehera, 110.000 euro bildu ziren. Kontuan izan behar da, Zuberoako bertako produktuekin osatzen direla saskiak eta tokiko laborarientzat ere badela laguntza hori.

Ikastoletako kide diren laborarientzat.

Bai. Funtzio bikoitza du; ikastolak laguntzea baina bertako laborariak, tokiko ekonomia ere bai. Bertako komunitate euskaltzalea laguntzeko modu onenetakoa da. Ezin da eteten utzi.

Laster egokituko da Urdiñarbeko urteroko hitzordua?

Iaz, bertako gazteekin lotura egin zen, han jada eman da belaunaldi aldaketa hori. Nahi duguna da Usurbilen ere gazte taldetxo belaunaldi berri bat, han jada antolatzen ari direnekin harremanetan jartzen joatea, herri afaria sostengatzen jarraitzeko.

Zein da gazteen, euskararen egoera Zuberoan?

Bi plano bereizi daitezke. Hizkuntzaren egoerari erreparatuta, azken urteotan ez bezala, orain esan genezake, bertako euskalgintzak lortu duela euskara erdigunean egotea. Horren adibide da, Ipar Euskal

Herrian zenbait udalek euskarari zor zaion aitortza egiteko egin duten saiakera udaletxeetan eta nola suprefetak aitortza horien aurka egin duen. Horren aurrean, manifestazio nazionala deitua dago azaroaren 21erako. Ildo horretan, euskalgintza oso koordinatua dago manifestazio hau hauspotzeko baina baita manifestazio ostean, datozen erronkei eta oztopoei aurre egiteko ere. Badago, beraz, erdigunean euskararen aldeko borroka eta hor aldatzen ez dena da, Seaskak horretan guztian duen erreferentzialtasuna. Ikastolak dira nolabait, borroka horretan guztian bultzatzaileetako batzuk. Xiberoko Bozaren lokala ere berritu da. Usurbildik auzolanean diru partida bat helarazi zitzaien laguntza gisa. Bestalde, Maulen gaztetxe baten aldeko apustua egin dute, hori ez zen ikusten aspaldi. Zuberoak askotan izaten du komunitatea biltzeko behar hori. Gaztetxeak ere bultzada hori emango dio. Gaztetxe horretan euskararen aldeko borroka erdigunean kokatzen da. Bere funtsetako bat da Zuberoako gazteei euskaraz bizitzeko arnasgunea eskaintzea. Maila institucionalean, Lurralde Elkargoak badu erronka bezala, despopulazioaren arazari aurre egiteko erronka. Hor udaletxe dezente Zuberoan elkarlanean ari dira, maila ekonomiko zein sozialean, alternatibak martxan jarri eta erronka hori betetzeko. Bai euskararren arloan, arlo sozialean eta ekonomikoan gauzak mugitzen ari dira, ez agian haiek nahiko luketen bezainbeste, baina antolatuta dabiltza lanean, bai erakundeetan, ikastoletan, eta herri mugimenduan. Usurbildik saiatzen garena da, hori guztia hauspotzen eta ekarpena egiten; ahal den heinean, haien errealitatea hona ekartzen eta gure errealitatea ere hara eramaten. Hori guztia, modu ludiko batean bizi da herri afari horretan.



Ikaskoliren aurtengo kanpainaren aurkezpenean sustatzaileek ateratako argazkia.

Asmoa bada harreman hau beste modu batean iraunkortu edo indartzekoa?

Haiek aipatzen dutena da hau egin dezakegula baina beste belaunaldi bat garen heinean, ere agian egin daitekeela beste ekimenen bat. Adibidez, bertako elkartearen 25. urteurrenean Odolaren Mintzoak jo zuen. Maskaradaren Zuberoaz kanpoko emanaldi bakarretakoa Usurbilen izan zen. Harremantzeko saiakera asko egin dira.

Zergatik egin behar dugu bat kanpainarekin?

Kanpainan parte hartzeko deia egin nahi genuke, usurbildar bezala bere aletxoa jartzeko. Gonbita egin ere Baionan Euskal Konfederazioak deitutako manifestazioan parte hartzeko. Agian, ezin duzu beste ekimenetan parte hartu, baina bada aukera erraza, gabon giroan halako otar bat erosita proiektu honekin Zuberoa babestu eta errealitate hau, herri bezala dugun erronka hau ere hurbilekoekin partekatzeko. Norbaitek interesa izango balu datorren urtean kanpainarekin laguntzeko, harremanetan jar dadila. Ongi etorria izango da.

"BI HERRIAK ELKARREKIN HARREMANTZEKO SAIAKERA ASKO EGIN DIRA"

"KANPAINAN PARTE HARTZEKO DEIA EGIN NAHI GENUKE, ALETXOA JARTZERA"

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak

-Pettara (52 euro): ahate gibel berrosatua, eztia, ardi gazta kiloa, bixkotx sukratuak eta pastak.
-Arbaila (57 euro): eztia, bixkotx artisanalak, kilo erdiko bi ardi gazta, bixkotx gatzatuak, erreximenta, pastak eta tisana.
-Basabürüa (70 euro): mozkin biologikoz osatutako saskia.
Eskabideak: ikaskoli.eus nahiz NOAUA! K.E. bidez egin ahalko dituzue azaroaren 22ra arte.
Banaketa: abenduaren 14tik aurrera NOAUA! K.E.-ren egoitzan eta abenduaren 20ko NOAUA! K.E.-ren San Tomas azokan.
Informazio gehiagorako: ikaskoli.eus

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus

txirriStra
TABERNA
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42



Orrialde honetan jaso ditugun denborak (eta herriz herriko zerrendak) antolatzaileen web orrialdetik hartu ditugu. ARGAZKIA: JON INSAUSTI MAISTERRENA

Azken hamarkadako ordezkaritza zabalena, Behobia-Donostia lasterketan

Aurreko igandean, 84 herrikideek parte hartu zuten 61. Behobia-Donostia lasterketan. Iaz baino hamahiru lasterkari gehiago izan dira aurtengoan. Guztira, 30.000 lagun irten ziren Behobiatik.

61. Behobia-Donostia: sailkapena

Aginaga

- Jokin Pagola Bereziartua 01:15:38
- Jon Galarraga Otermin 01:33:16
- Ander Aristegi Otamendi 01:37:03
- Markel Aristegi Otamendi 01:43:25
- Julen Borreguero Fernandorena 01:51:23

Zubieta

- Unai Echeverria Olaiz 01:35:08
- Emilio Audicana Audicana Olazagirre 01:38:43
- Unai Zaldua Vega 01:46:58
- Ander Iraola Bordagaray 01:50:16
- Ane Bailo Etxeberria 01:57:17

Usurbil

- Jon Presa Herranz 01:11:50
- Andoni Fiore Holgado 01:14:42
- Iñaki Añorga Unanue 01:15:16
- Iñaki Errazquin Eceiza 01:15:19
- Ander Orena Irureta 01:17:17
- Iñaki Gerica Juan 01:19:47
- Irati Larrañaga Matxain 01:21:46
- Jon Tapia Lizarraga 01:25:40
- Ivan Ruiz Sanchez 01:25:52
- Izadi Azkonobieta Etxabe 01:28:34
- Xabier Aranburu Leiva 01:29:21
- Eneko Portu Irasuegi 01:31:16
- Tito Izaguirre Godineau 01:31:18
- Salbatore Arruti Aramburu 01:31:24
- Asier Iruretagoyena Lazcano 01:32:57
- Jon Arzallus Goñi 01:34:17
- Agustin Molina Cuesta 01:35:40
- Peru Beloki Segurola 01:36:03
- Ekain Ramos Martin 01:36:20
- Maddi Altuna Aizpurua 01:36:46
- Arturo Rojas Pedrini 01:37:01
- Oliver Garcia Linares 01:38:20
- Julen Elizasu Lertxundi 01:38:42
- Martí Sanchez Juanola 01:38:48
- Axier Dominguez Prieto 01:39:03
- Aimar Galan Azcue 01:39:38
- Pablo Herrero Vicente 01:40:54
- Elur Zaldua Elortza 01:40:55
- Leire Samsó Usandizaga 01:41:32
- Imanol Orbegozo Aizpurua 01:42:03
- Aitor Vicente Palos 01:42:56
- Zuhaitz Andres Alberdi 01:43:10
- Noemi Santamaria Melero 01:44:19
- Juan Alberto Roman Carro 01:44:20
- Ane Aburruza Ucar 01:45:20
- Jean Toral Salazar 01:45:51
- Mario Rodriguez Roman 01:47:07
- Julen Lazkano Iturrioz 01:47:10
- Josu Orbegozo Mindegia 01:47:23
- Nahia Arbizu Zabala 01:49:04
- Lide Pagola Agorreta 01:49:04
- Uxue Zaldua Olarra 01:49:37
- Maximo Garcia Sanchez 01:50:32
- Sergio Garcia Sierra 01:50:32
- Maitane Eizagirre Bruño 01:51:18
- Rosa Uribe Navarro 01:52:49
- Eli Eizagirre Bruño 01:52:53
- Miren Aizpea Unsain Izeta 01:54:27
- Ander Echeverria Franco 01:54:42
- Amaia Bengoetxea Azurmendi 01:54:57
- Joseba Undiano Korta 01:55:06
- Lara Guerra Montes 01:55:44
- Sergio Montes Guerra 01:55:46
- Erramun Erro Aizpurua 01:56:27
- Maialen Esoain Peña 01:56:28
- Eduardo Jauregui Torrecilla 01:56:40
- Alazne Olaizola Iparragirre 01:56:40
- Ekhi Arrieta del Pico 01:57:37
- Lucia Ucar Gonzalez 01:58:04
- Nadia Torrea Teijido 01:58:55
- Jon Guembe Urra 01:59:02
- Arantxa Zubizarreta Pellejero 01:59:43
- Pablo Roura Martínez 02:01:23
- Mikel Roura Arrillaga 02:01:23
- Leire Iturrioz Azkonobieta 02:06:45
- Maren Sasiain Ortuñez 02:11:12
- Pello Sasiain Martinez 02:11:12
- Xabier Zubeldia Urkola 02:11:16
- Arantxa Udabe Pagola 02:16:56
- Arantza Esnaola Hernaiz 02:17:59
- Javier Martinez Manso 02:18:36
- Xabier Sarasola Garmendia 02:22:38
- Garazi Mekolalde Loinaz 02:44:26
- Amaia Aristegui Iturraran 02:47:06

Sailkapen osoa, hemen ikusgai: behobia-sansebastian.com



Larunbat honetako bizikleta martxak Usurbil eta Añorga batuko ditu. SORTALDE

Larunbatean, bidegorri seguru baten aldeko martxa

Sortalde energia komunitateak antolatu du, Usurbilen erdiguneraino bidegorri seguru eta zuzena egokitzea eskatzeko.

Bizikleta martxa antolatu du Usurbildik Añorgara Sortalde Usurbilgo energia komunitateak azaroaren 14an. Ekimen horren bidez, udalerri honen erdiguneraino bidegorri seguru eta zuzena egokitzea eskatuko dute.

"Bizi Biziz", hortxe Sortalde Usurbilgo Energia Komunitateak egin digun gonbita. Mugikortasunerako bizikleta baliatu eta lehenesteko deialdia egin dute. Horretarako, ordea, bidegorri segurua Usurbilgo erdiguneraino heltzea nahi dute. Hori aldarrikatzeko, galdegiteko bizikleta martxa antolatu dute azaroaren 14an. Goizeko 11:00etan Usurbilgo frontoitik abiatuko den ekimenera batzeko hitzordua finkatu dute, "Usurbilgo plazatik, Zubietan barrena joateko Añorgaraino, han N634 errepidean sartu eta Usurbilgo plazara bueltatzeko".

Ekimenaren deitzaileek azaldu moduan, "Donostiatik Lasarterako bidegorria dago aspaldidanik, orain dela gutxi atondu berria. Jende askok erabiltzen du egunero, oinez edo bizikletan, garraio-bide oso egokia baita. Segurua da, bestelako trafikotik banandua. Eta zuzena: Lasartetik Donostiara buelta handirik eman gabe. Gora-behera handirik izan gabe. Hau da, erabilgarria eta praktikoa erabili nahi duenarentzat".

Baina hor dago bidegorriaren etenaldia, Mutrikurainoko bidea planifikatua egon arren. Sortaldek gogora ekarri moduan, "izan zen bizikleta bideen plan sektorial bat onartua Batzar Nagusietan 2013an. Baina dena ez zen bete, eta bere horretan utzi zen. Usurbili 2. ibilbidea zegokion: Donostia-Mutriku. Baina Lasarteraino besterik ez da iristen. Horren lekuko, Urbil parean Donostia-Mutriku bidegorria adierazten duen panela. Iragarri bai, baina ez dago".

Proposaturiko bidea, gainera, ez zela zuzena azaldu du Sortaldek. "Zubietatik ematen zuen buelta. Hau ez da, gure ustez, onargarria. Bideek zuzenak izan behar dute, garraiorako egokiak, eta ez turismorako pentsatuak".

Horixe da hain zuzen, hilaren 14ko bizikleta martxaren bidez galdegin nahi diotena Gipuzkoako Foru Aldundiari; "bidegorri segurua eta zuzena Añorgatik Usurbil erdialderaino. Lehen aurreikusia baldin bazegoen, ez dugu uste gure eskaria burugabea denik".

"Uste dugu baduela konponketa"

Energia-kooperatiba izanik, Sortalde "energiaren kontsumo egokiaz arduratuta dago. Horrek eramaten du bizikleta erabilera sustatzera eta zabaltzera, eta horretarako bidean izan daitezkeen eragozpenen kontra borrokatzera".

Garraio merke eta eraginkorra dela gogorarazi digute, onura askokoa; "energia kontsumo txikia eta berriztagarria, gorputzaren osasunerako egokia, eta abar. Eta kasu askotan, beste garraio gehienak baino azkarragoa". Bistakoa da, halere, guztiak bezala, eragozpenak baditu. "Eguraldi egoera zailetan arazotsua izan daiteke; euriak eta haizeak dezente nahas dezakete ibilaldiaren egoera, desatsegina egin arte eguneroko egoera arruntetan, lanera edo ikastera joan-etorrian gabiltzala. Horren aurrean, ezer gutxi egin daiteke egoera hobetzeko. Baina badago beste eragozpen handi bat: bide egokiak ez izatea eta berorietan arriskua sortzea. Azken hau kezkagarria zaigu, eta uste dugu baduela konponketa".

"2013AN, BIZIKLETA BIDEEN PLAN SEKTORIAL BAT ONARTUA IZAN ZEN BATZAR NAGUSIETAN BAINA DENA EZ ZEN BETE, ETA BERE HORRETAN UTZI ZEN"

Puzgarri Festa, igerileku eraberrituan

Igerileku eta saunako obren amaiera ospatzeko asteburua antolatu du Usurbilgo Udalak azaroaren 14rako eta 15erako; Puzgarri Festa haur eta gaztetxoentzat, HH3-DBH4 artekoentzat. Igerilekuen edukiera mugatua izanda, hainbat txanda eta parte hartzeko erabilera irizpideak finkatu dituzte antolatzaileek.

Puzgarri Festa, txandak

Azaroak 14, larunbata

- 09:30-10:20, 10:30-11:20, 11:30-12:20, 12:30-13:20 Familiak (HH3-LH2).
- 13:30-14:50, 15:00-16:20, 16:30-17:50, 18:00-19:20 Gazteak (LH3-DBH4).

Azaroak 15, igandea

- 09:30-10:20, 10:30-11:20 Familiak (HH3-LH2).
- 11:30-12:20, 12:30-13:20 Gazteak (LH3-DBH4).

Araudia

- Edukiera: txanda bakoitzeko gehienez 86 pertsona sartu ahalko dira, Oiardo kiroldegiko harreran izena emanda.
- Prezioak: usurbildar abonatuek doan. Ez abonatuen kasuan, adingabeen sarrerak 4,60 eurotan eskuratu ahalko dira, heldu laguntzaileenak 2,26 eurotan.
- Izen-ematea, Oiardo kiroldegiko harreran: azaroaren 5etik aurrera usurbildar abonatuek; gainerako erabiltzaileek azaroaren 9tik aurrera, plazak bete arte.
- Arauak: gazteak (LH3-DBH4) laguntzarik gabe sartuko dira; familien txandetarako (HH3-LH2) heldu batek izena eman beharko du gutxienez, eta bertan egon beharko du haurrekin. Heldu bakoitzeko gehienez lau haur egon ahalko dira. Txanoa eta txankletak derrigorrezkoak izango dira. Sorosleak eta hezitzaileak egongo dira une oro, jaia segurua eta alaia izateko.

Herritar musikari eta abeslariak Arantzazun kantari

"Gabon dugu anuntzio" izeneko emanaldia eskainiko du herritar talde batek azaroaren 28an, goizeko 10:30ean, Arantzazu Santutegian, Basilikako koruan. Emanaldi horren sorkuntza lanak abiaturikoa Joan Luis Atxega herrikidea da, Usurbilgo Organoaren Lagunak taldeko kidea. "Arantzazun sortutako 350 gabon kanta musikatu ditu" Urdaiagakoak. Hitzordu horretan, "gabonetako abesti horien entrega egingo die Joan Luis Atxegak berak Arantzazuko Frantziskotarrei". Atxegak berak organo jole gisa parte hartuko du. Baina berarekin batera herrikide gehiago ere izango dira emanaldian



Joan Luis Atxega, organojolea.

abesten. Arantzazu Aranburuk, Josune Aranburuk, Maria Arrutik eta Juan Ignacio Larreak osatuko dute kantarien taldea.

Saiorako sarrera kopurua mugatua izango da. 5 euro ordaindu beharko da, bazkideek doan eskuratu ahalko dituzte, bideotatik: 688 613 840 / adiskideak@arantzazu.org

"Go!azen!"-en denboraldi berriaren hasiera Sutegin

Telesail arrakastatsuaren hamahirugarren denboraldiko lehen atala Sutegiko auditorioan proiektatuko dute ostiralean, azaroaren 13an; 18:00etan eta 19:30ean. Agortu ez badira, gonbidapenak aurrez eskuratu ahalko dira usurbilkultura.eus plataforman.

Proiekzioaren lankidetzan dira Udala, udalerri hau kide duen UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) eta EITB. Hain zuzen, UEMA-k eta EITB-k sinatutako hitzarmenaren testuinguruan antolatu ohi dira hitzorduok udalerri euskaldunetan; tartean, aipatu moduan, Usurbilen. "Udalerri euskaldunetan



Ostiralean bi saio eskainiko dituzte.

euskarazko ikus-entzunezkoak areago zabaltzea" dute xede nagusia.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurtengo Abadia Saria jasoko du telesailak, "gazteen artean euskararen erabilera sustatzeagatik "modu erakargarri, natural eta iraunkorrean".

Literaturari eskainitako ziklo zabalak etenik ez

Hausnarketarako topagunea izandako "Beti Ikasten!" zikloa antolatu zuen Sutegi udal liburutegiak iragan aste hasieran. Irakurmenaz aritu zen Yolanda Arrieta sortzailea eta pantailez Mikel Cerezo arlo horretan aditua. Udazken parterako antolaturiko eskaintza oparoaren baitan egin zituzten ekimenok. Segida izango dute asteotan:

Azaroak 12, osteguna

• 18:00 Pello Añorgaren ipuin kontalariaren saioa Sutegi udal liburutegian, 3-5 urtekoentzat.

• Oharra: txikienak heldu batek lagunduta joatea komeni da.

Azaroak 23, astelehena

• 18:00 Ines Bengoaren ipuin kontaketa, 6 urtetik gorakoentzat, udal liburutegian.

Azaroak 27, ostirala

• 17:00 Irakurketa solasaldia 9 urtetik gorakoentzat. Yolanda Arrietaren "Mari Xor" liburua izango dute mintzagai.

Azaroak 30, astelehena

• 17:00 Irakurketa solasaldia 12 urtetik gorakoentzat, udal liburutegian. Euskadiko Haur eta Literatura Sariaren irabazle Yolanda Arrietaren "Zurtz" liburua izango dute mintzagai.

Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Udazkeneko organo kontzertua

Azaroaren 20rako antolatu dute Organoaren Lagunak, Fray Jose Echebarria Elkarteak, Usurbilgo parrokiak eta Usurbilgo Udalak, arratsaldeko 19:00etan Salbatore elizan.

Ignacio Arakistainen eskutik

Ignacio Arakistain Azpeitiako organista eta musikariak eskainiko du kontzertua. "Musikene eta Vienako Unibertsitatea bezalako erreferentziazko zentroetan hezia, Europako hainbat herrialdetan errezitaldiak eskaini ditu eta musika, tradizioa eta esperimentazioa uztartzen dituzten proiektuetan aktiboki laguntzen du". Bere egungo "irakaskuntza-lana jarduera artistiko biziarekin uztartzen du".

Azaroaren 19an, 'Musikalean'

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak antolaturiko "Musikalean" ekimenarekin bat egingo du beste urtez batez Zumarte Musika Eskolak. Tokian tokiko eskola hauetako kideen eta haien jardunaren plazaratzea sustatu ohi du ekimenak, musikarien zaindari gisa izendatutako azaroaren 22ko Santa Zezili egunaren bueltan. Aurtengoari dagokionean, hilaren 19rako antolatu ditu Zumartek bi hitzorduok:

Azaroak 19, osteguna

• 18:00 Kalejira Zumarte Musika Eskolatik hasita. Triki-pandero, haizezko eta perkusioko ikasleen eskutik.

• 19:00 Talde instrumentalen saioa Sutegin.

ARANKA BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943 498 917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529.

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LAN ESKAERAK

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Esperientziaduna. 666 58 24 23.

Titulu soziosanitarioa eta erreferentziak dituen emakume bat naiz eta zaintza lanak, interna moduan zein orduka aritzeko lan baten bila nabil Usurbil edo inguruan. 618814363.

Gauez pertsona helduak zaintzeko lan bila dabilen neska bat naiz. Titulazioa eta 25 urteko esperientzia dauzkat. 609647728.

Plantxa-zerbitzua edo laguntzaile lanetan orduka aritzeko lan bila dabilen emakume bat naiz. 614349021.

Etxeko lanetarako nahiz zaintza lanetarako lan bila nabil. 676 282 206.

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkat. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak. 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. 747 446 091.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

90 zm-ko ohe artikulatu bat koltxoiarekin eta besaulki edo butaka artikulatu motordunak dauzkagu salgai. 605280119.

Futbol partidak

Haranen

Azaroak 14, larunbata

- 12:00 Gizonezko kadeteen 1. Maila: Usurbil FT-Arrupe E
- 16:00 Gizonezko jubenilen Goren Maila: Usurbil FT-Danena B
- 18:15 Gizonezko Erregionalen 1. Maila: Usurbil FT B-Urki B

Azaroak 15, igandea

- 09:00 Alebinen Nesken Kopa: Usurbil FT-Orioko F.T.
- 17:00 Emakumezkoen Ohorezko Erregional Maila: Usurbil FT-Elgoibar C.D.

Haranetik kanpo

Azaroak 14, larunbata

- 11:20 Emakumezko kadeteen 1. maila, Donostiako Cesar Beniton: Intxaurdi KE B-Usurbil FT
- 12:00 Gizonezko kadeten 1. maila, Azpeitiako Garmendipen: Lagun Onak B-Usurbil FT B
- 15:30 Emakumezkoen Gorengo Maila, Urnietan: Urnieta K.E.-Usurbil FT B
- 17:30 Gizonezkoen Gorengo Maila, Trintxerpen: Trintxerpe C.D.-Usurbil FT

Azaroak 15, igandea

- Alebinen 2. Urtea, Ligako 1. Faseko lagunartekoak, Lazkaoko Arizti Handin:
  -Lazkao K.E.
  -Usurbil FT
- 15:00 Mutilen Infantil Handiak, Orioko Mendibeltzen: Orioko F.T.-Usurbil FT

Eskubaloi partidak

Oiardo kiroldegian

Azaroak 14, larunbata

- 09:30 Infantil neskak: Usurbil K.E.-Zuhegan Mediolanum Orio Eragin
- 11:00 Kadete neskak, territorial maila: Usurbil K.E.
  -Autlan Aloña Mendi K.E.
- 17:40 Infantil mutilak:
  -Usurbil K.E.
  -Eibar Eskubaloia A
- 19:30 Senior mutilak, lehen nazionala:
  -Saizar Usurbil K.E.
  -Eibar Eskubaloia

Azaroak 15, igandea

- 10:00 Jubenil mutilak, territorial maila:
  -Usurbil K.E. B
  -Karibe Berri Legazpi
- 11:45 Jubenil neskak, territorial maila:
  -Cortes Usurbil K.E.
  -Leizaran Brikogoros

Oiardotik kanpo

Azaroak 14, larunbata

- 16:00 Senior mutilak, territorial maila, Lezoko Bekoerrotan: Munttarpe-Usurbil K.E.

Azaroak 15, igandea

- 11:45 Kadete mutilak, Euskal Liga, Eibarko Ipuruan: Eibar Eskubaloia A-Usurbil K.E.
- 13:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga, Eibarko Ipuruan: Eibar Eskubaloia-Usurbil K.E. A

Zehazteke: senior neskena.

Pilota Usurbilen

Azaroaren 13, ostirala, 17:30

Alebinak Gipuzkoako errendimendu txapelketa
Pagazpe (Sanchez)-Lapke

Infantilak Gipuzkoako errendimendu txapelketa
Pagazpe (Ostolaza)-Zarautz

Kadeteak Gipuzkoako 2. Maila banaka
Pagazpe (Alejo E.)-Hernani

Nagusiak Gipuzkoako buruz burukoa 3. Mailan:
Pagazpe (Errasti)-Tolosa

HILDAKOAK



Ramon Camino Ubegun
Azaroaren 3an hil zen, 88 urterekin.



Maxux Iribar Amigorena
Azaroaren 6an hil zen, 61 urterekin.



Arantxa Zuloaga Alberdi
Azaroaren 4an hil zen, 69 urterekin.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 12

USURBIL Ipuin kontaketa saioa

Pello Añorgaren ipuin kontaketa saioa 3-5 urtekoentzat.
18:00 Sutegi udal liburutegian.

OSTIRALA 13

KALEZAR Hitzaldia: "Emakumea eta ariketa fisikoa"

Agurtzane Alkorta Urdanpilletaren eskutik.
17:00 Emakumeon Etxean.

USURBIL "Go!azen" telesailaren bi proiekzio

Sarrerak doan eskuragarri, usurbilkultura.eus plataforman.
18:00 / 19:30 Sutegin.

ZUBIETA "Herrimamituz" bertso saioa

19:00 Zubietako elizan.

LARUNBATA14

USURBIL Añorgara bizikleta martxa

Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitateak antolatua.
11:00 Usurbilgo frontoitik.

USURBIL Usurbilgo Txalaparta Festa

Jexux Artze Kultur Elkartea eta 650 Usurbil Bizi!ren eskutik.
Egun osoko jardunaldia.



Andoni Egaña, Iñigo Mantzizidor eta Xabier Lonbide, ikuskizuneko protagonistak.

"Herrimamituz" bertso-saioa Zubietan

Garai batean Aginagan egin zuten. Zubietaren txanda izango da ostiral honetan, azaroaren 13an, 19:00etan Zubietako elizan. Xabier Alberdi Lonbide historialariak bertako hainbat pasadizo historiko azalduko ditu eta horietan oinarrituta bertsotan ariko dira Andoni Egaña Makazaga eta Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi". Zubieta Lantzen elkarteak antolaturikoa izango da "Herrimamituz" tokiko historia eta bertsoa uztarturiko saioa.

"Emakumea eta ariketa fisikoa" hitzaldia, Agurtzane Alkortarekin

Agurtzane Alkorta Urdanpilletak gidatuko du saioa, ostiral honetan, azaroaren 13an, arratsaldeko 17:00etan Kalezarko Pelaioenean kokaturiko Usurbilgo Emakumeon Etxean. "Saioaren helburua izango da, estetika, ispilua...berekiko duten exijentzia eta presioak aldea batera uztea eta emakume orok bere bizitzako etapetan gorputza ulertzea, zaintzea eta indartzea, betiere konfiantzaz eta errespetuz".

Bisita gidatuak

Azaroak 25, asteazkena
• 10:00-11:00 'Zero Zabor' bisita gidatua.

Azaroak 27, ostirala
• 10:00-11:30 'Zaintzaren Usurbil'.

Abenduak 12, larunbata
• 11:00-12:30 Salbatore elizaren ondarea eta organo erakustaldia (gaztelaniaz).

Erreserbak:
650usurbilbizi.eus

Musikalean

Azaroaren 19an, "Musikalean" ekimenarekin bat egingo du Zumarte Musika Eskolak.
• 18:00 Kalejira Zumarte Musika Eskolatik hasita. Parte hartzaileak: triki-pandero, haizezko eta perkusioko ikasleak.
• 19:00 Talde instrumentalen saioa Sutegin.

Organo kontzertua

Azaroaren 20an, Ignacio Arakistainen eskutik, 19:00etan Salbatore elizan.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN
943 360 321
noaua@publizitatea.eus

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



TREN ETA AUTOBUS ORDUTEGIA 26/27

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, NOAUA! eta udaletxean aurkituko dituzu. Deskargatu ezazu www.noaua.eus webgunetik edo eskaneatu QR kodea zure mugikorrarekin!



noaua

Abenduak 20
IGANDE GOIZEZ

SAN TOMAS

lehiaketan parte hartzeko deialdia

Herritarrek sagardo eta babarrun lehiaketan parte hartu ahal izango dute.
Parte hartzeko azken eguna **abenduak 14.**

1.saria: 300 € + txapela
2. saria: 150 €
3. saria: 60 €



Noaua!k baserritar guztiak gonbidatu nahi ditu

noaua

Usurbilgo Udala